

# ...eta Kitto!

2017-VI-2

1.018 zkia.



# 25 urte euskeraren alde lanean

## 2 mō betaurreko:

Graduatuk erreflexuen aurkako  
leiarrekin  
+  
eguzkitako graduatuak

**97€**

Gure betaurreko  
guztiak bilduma  
berrietakoak dira

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN  
LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Eringo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Bidebarrieta, 2

Tel.: 943 20 05 22

**EIBAR**

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan



**Aurrematrikula ekainak 5etik 16ra**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Lanbide Heziketa eta Heziketa

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA ADMINISTRATIVA Y CULTURA

Lanbide Heziketa eta Heziketa



#### ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

eta eskaintza partzealean, arratsaldean...

- Erizaintzaren laguntza
- Galdaragintza

#### GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

eta eskaintza partzealean, arratsaldean...

- Automozioa
- Gizarteratzea



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO IRUDIA:**  
Silbia Hernandez.

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

# eskutitzak

## – ESKERRAK EMATEN –

Aurreko igandean nire bi lagunek (biak nagusiak) Isasiko eskilara mekanikoetan istripua izan zuten, zoriez zauriak arinak izan ziren, baina odoltsu eta aparatosak.

Gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiet lehen momentutik laguntzera etorri ziren auzokideei,

baita deitu eta berehala etorri ziren udaltzain eta ambulantiako laguntzari ere eta, noski, anbulatorioko mediku eta zerbitzuei.

Halako momentu zail batean hainbeste laguntza edukitzea benetan barru-barrutik eskertzekoa da.

**ANGELITA, AMAIA ETA MARISA**

## – EKAINAREN 10-EAN, DENOK BILBORA! –

Olatuz olatu, herriz herri, milaka eta milaka borondate pilatu ditugu erabakitzeo eskubidea erabiltzearen alde, erabakitzeo prest gaudela argi utziz. Hain zuzen ere, hori da ekainaren 10ean Bilbon irudikatu nahi duguna. Estatuz politikoari buruz erabakitzeo nahia erakutsiko dugu euskal herritarrok.

Erabakitzeo eskubidearen aldeko indar guztiak batuta, Euskadi plazatik Eliptika plazaraino galdera ikur erraldoia osatuko dugu. Eta herritarrez ez ezik edukiz ere beteko ditugu kaleak. Hilabeteotan landutako Herritarron Ituna aurkeztuko dugu mobilizazioaren amaiera ekitaldian; Itun demokratiko horrek jasoko ditu Euskal Herrian erabakitzeo eskubidearen inguruan gaur arte lortutako adostasunak eta erabakiaren oinarriak. Gizarte osoarentzako tresna ireki bat izateko jaio da, baina baita pauso berri eta sendo bat emateko ere, erabakiaren bidean. Ekainaren 10ekoa, beraz, ez da hutsetik jaiotako ekime-

na. Orain arte egindako lana, lortutako adostasunak eta sortutako borondatea oinarri, aurrera egiteko abiapuntua izango da.

Dena prest daukagu: Herritarron Itunaren oinarriak, herrietako taldeak, boluntarioak... Finean, konpromisoak bildu nahi dituen gonbidapena da. Hain zuzen ere, ekimenean parte hartzeo 'konpromiso txartelak' jarri ditugu eskura 2 euroren truke, ekimena finantzatzeko. Txartel horiekin batera banatuko ditugu mosaikoa osatzeko erabiliko ditugun puxikak.

Euskal herritarrok ere nolako egitura politikoak nahi ditugun erabaki nahi dugulako... Erabakitzeo aukera gauza dadin eskatuko dugu elkarrekin, bai guztion artean osatuko dugun galdera ikur erraldoian eta baita mugari izango den Herritarron Itunean ere.

Erabakitzeo prest gaude. Ekainaren 10ean denok Bilbora!

**EIBARKO GURE ESKU DAGO**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LO-LO, LO-LO EGIN.**- Lo egin, ume berbetan. "Guazen lo-lo egittera, laztana, lo-lo, lo-lo, haundi egitteko".

**LO-ZORRUAK / LO-ZURRUZTADAK.**- Lotan egiten diren zurrungak. "Kaletik entzutzen ziran aren lo-zorruak". "Bere lo-zurruzadak entzuten ziran urriñetik".

## astean esanak

"Euskal Herria armagintza potentzia txiki bat da. Hor daude arma laburrak egiten dituen Beretta Benelli famatua Araban eta osoki lurreko armadarentzat produzitzen duen Sapa Placencia Andoainen, lehegailuak, balistika eta arma astun batzuk egiten dituen. Garapen metalurgiko handia egon da hemen, eta industria horren zati bat armagintzara joan da. Horregatik esan dezakegu gerra hemen hasten dela: kanpora saltzen direlako armak, baita gerran dauden herrialdeetara ere"

(PERE ORTEGA, EKINTZAILE ANTIMILITARISTA)

"Esaten dugunean fiskalitate sistemak gizarteak behar dituen baliabideei bide eman behar diela etengabeki, ondo pentsatuta ez zen alderantziz izan beharko? Hau da, ez luke gizarteak aurretik aberastasun hori sortu beharko, ondoren esku artean duguna gastatzeko? Zer egiten dugu gutako bakoitzak gure etxeetan: nahi duguna gastatzen dugu, gure seme-alabek eskatzen digutena edo bakarrik dugun hori? Aberastasun banatu behar dela diotenez badakite aurretik sortu behar dela? Aberatsen gehiago ordainduta ezer gutxi aurreratzen dugu, gutxi dira -eta; klase ertainean dago dirua"

(IGNACIO MARCO-GARDOQUI, EKONOMILARIA)

"Arabian -eta, zehazkiago, Gasteizen-dago Mendebaleko euskararen ardatza. Antzina Arabako Lautadan zeuden herri nagusiak. XI. mendean osatu zen, adibidez, Arabako elizbarrutia, eta han batu ziren Araba, Bizkaia eta Deba ibar gehiena. Bizkaiko hiriguneak geroagoak dira. Bilboren handitasuna XIV. mende ondorengo da, eta mendebaldeko euskararen bereizgarri nagusiak baziren orduko. Euskarari dagokionez, XVI. mendetik aurrera Gasteiz eraldun bihurtu zen eta mendebaleko euskara bi euskalkitan banatu zen: arabarra eta bizkaitarra"

(KOLDO ZUAZO, HIZKUNTZALARIA)





EVA PEREZ DE ALBENIZ

## Arretaren boterea

Galdera batekin hasiko naiz: Zenbat arku dauzka Eibarko Udaletxeak? Ziur nago gehienak ez zaretela gai galdera honi erantzun zuzena emateko. Ez da izango ez zaretelako Untzagatik mila aldiz pasatu, ezta Udaletxeari ez diozutelako begiratu ere. Zuen begiek arku guzti hoiak ikusi dituzte bai, zergaitik orduan ezin dugu zerbaki zehatza gogoratu? Arretarik jarri ez dugulako.

Arreta tresna boteretsua da, zerbaitek gure burmuinean lekua hartu nahi badu atentzioa bertara zuzendu behar dugu lehenago. Arreta eskeintzen diozun hori besterik ez dago. Telefono mugikorrek gure arreta lortzeko eta lotzeko hainbat trikimailu dauzkate: mezu bat sartzen zaigunean soinu, twitterreko sarreentzat argia, facebookeko jakiñarazpenentzat bibrazioa... eta guzti hauek gure arreta kateatzen dute.

Eta gure atentzioa bertara zuzentzen badugu ez dugu beste ezertara zuzentzen, fundamentuz ez behintzat, ze gauza bi edo hiruren artean banatzen dugunean ez baitu ondo lan egiten.

Eta zer galtzen ari gara telefonoari kasu egiten diogun bitartean? Inguruko pertsonak esaten digutena, enarak Eibarko zerutik hegan ikustea edo munduan dauden egoera miserableez arduratzea.

Arreta orduan negozio bihurtu da, atentzio xurgatzaileak erabakitzen dute zeri egiten diogun jaramon eta zeri ez, zer existitzen den gureta eta zer ez. Eta hori manipulazioa da.

Beraz, sarean gure pribatutasuna zaintzen dugun bezela aldarrikatu dezagun baita arreta guk nahi dugun lekura bideratzea, eskubide bezela eta arma sozial bezela. Hurrengoan Untzagatik pasatzen zaretenean arreta udaletxeari eta ez mugikorrari mesedez.

## Kalteberak diran nagusixendako, menpekuendako eta zaintzailliendako plana

Udalak, Gizartekintza sailaren bittartez, kalteberak diran nagusixendako, menpekotasunen bat dakenendako eta haien zaintzailliendako esku-hartzeko plana egin dau Adindu Gerontologia Zerbitzuak, udal teknikari batek gainbegiratu eta lagunduta. Holako egoeria dakenen errealidadia zuzenian ezagutzeko asmuarekin, hainbat datu bildu ditue 120 lagunuen artian. Azterketan 85 zaharrek, 25 zaintzailek eta 10 profesionalek hartu dabe parte eta jaso dituen emaitzak txosten batian jaso eta nahi dabenak ikusteko moduan ipiñi ditue [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunian.

Egindako biharra aurreko barixakuan aurkeztu eben, udaletxeako pleno aretuan. Ekitaldixan esandakuaren arabera, aittatutako kolektibuaren benetako egoeria ezagutziaz gain bigarren helburu bat be euki dabe hasieratik: *“Behin egoeria zein dan ikusitta, esku-hartzeko plan bat egittia nahi genduan, kolektibo horren bizi-kalidadia eta ongizatia hobetzeko jarraibidiak eta jarduera zihetzak ezartzeko”*. Bildutako datuen arabera, Eibarrek 27.440 biztanle ditu gaur egun eta 1.143 lagun (%24'56) 65 urtetik gorakua dira. 80 urtetik gorakua, barriz, %9 dira (2.554 biztanle eta horretatik 741 mendekotasuna dake).



**erabiltzaille ditue Teleasistentzia edo Telealarma zerbitzuak Eibarren; etxeko laguntza zerbitzuak 94 lagunek erabiltzen dabe, 25 nagusi juaten dira Egogaingo eguneko zentrura eta laguntza psikologikorako Sendian programan 6 lagun ari dira parte hartzen. Datuak Adinduk bildu ditue.**

## “Beharra daukat” kanpaiñarekin bat egin dau Udalak

Sarrittan komuna erabiltzeko premiñia eukitzen daben Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixueri horretarako bidia erreteko “Beharra daukat” izeneko kanpaiñarekin bat egin dau gure herrixak, martitzenian horren barri emoteko egin eben ekitaldixan esandakuari jarraituta. ACCU Gipuzkoa Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixuen alkartiaren ekimenez martxan dagan kanpaiñiak gaixotasun horrek dituen bizi-kalidadia hobetziaz gain, gaitz horri buruzko informaziñua zabaldu eta gaixuak dituen premiñen inguruko konzientzia eragittia be billatzen dittuala azaldu eban Jone Argoitia alkarteko presidentiak. Azaldu eban, gaixuek muga asko izaten ditue bai etxetik urtetzeko, sarrittan komunera juateko larrialdixa eukitzen dabelako, baita harremanak estutzeko be. Udalaren atxikimenduari esker, Eibarko hainbat udal-establezimendutan (udaletxian, Portalean, jubilauek etxietan eta kiroldexietan) komuna lasai erabiltzeko aukeria izango dabe premiñia daken gaixuak. Kanpaiñarekin bat egitten daben tokixak errez identifikatzeko pegatina bat emoten detse eta gaixuak, barriz, azalpenak emoten jardun barik komunera juatia errazteko txartela eskatu leikie. Oin arte 300 bat denda, saltoki edo bulego inguruk



egin dabe bat ekimenarekin eta txartela eskuratzeko zein laguntzaille izateko interesa dakenak [www.beharradaukat.eus](http://www.beharradaukat.eus) webgunian sartuta topauko dabe horretarako bidia. Helbide horretanatik ituta daguzazeren zerrendia be ikusi leike eta mugikorrerako aplikaziñua be badago.



## Alcobendasen hildako ama-seme eibartarren ustezko hiltzaillia atxilotu dabe

Martitzen goizian atxilotu eben maiztaren 2xan Alcobendasen (Madril) etxian hilda topatu zittuen 45 urteko eibartarraren eta haren 12 urteko semiaren ustezko hiltzaillia, emakumiaren bikoteki-de ohia. Poliziaren arabera, martitzenian

atxilotu eben gizonak famelixako kide bateri aitortu zetsan berak hil zittuala bixak, hilketia gertatu eta segiduan eta, holan, haren billa ibilli ziran harrezkero. Madrillen bertan, Tetuan auzuan topau eta atxilotu eben.



## Egun zoragarria Amaña eskolako jaixan

Aurreko zapatuan Amañako ikastetxe-ko hirugarren festa egunera jua ziranak "zoragarri" pasatu ebela diñue ikastetxe-ko ordezkariak. Euren berbetan, "nahiz eta sargorixa izan, ur jolaseri esker haur eta nagusixak egun politta pasatu eben. Goizian ume eta gurasuendako jolas eta taillarrak egin genduazen eta, ondoren, danak alkarrekin bazkaldu genduan

eskolako kiroldegixan eta arratsaldian "dantza festarekin" gorputzak astinduta egunari amaiera bikaiña emon gentsan". Egunpasa ederra egituko ez eze, ume, famelixa eta irakaslien artian antolatzen daben festak "euskal giruan murgilduta hizkuntza, kultura eta ohitura desberdiñak alkar ezagutzeko eta batzeko be" balixo dabela diñue.

## autuan



### BILBOKO EKITALDIRAKO AUTOBUSAK

Gure Esku Dago-ren ekimenez ekainaren 10ian, 17:30xetan Bilbon, Euskadi plazatik abiatuta Eliptika Plazaraño, iñoizko galdera ikurrik haundixena osatuko da. Ekitaldixan Herritarron Ituna, euskal komunitate osuari zuzendutako itun demokratikua aurkeztuko dabe. Parte hartzeko "konpromiso txartela" eta puxika eskuratu leitez, 2 euroren truke, gastuak finantziatzeko. Eibartik ekitaldira juateko autobusak antolatzen dihardue. Ego Gaiñetik 16:00etan urtengo dabe eta izena emoteko Beleko, Buenos Aires, Guridi, Depor, Manuel eta Azkena tabernetara jua leike.

# KONTSUMO ARDURATSUAREN II. AZOKA EIBARREN

Ekainaren 3an  
 11:00-14:30  
 Anbulatorioko plazan

#### Antolakuntza



ALDATZEN

Finantziazioa

EIBARRO UDALA

#### Elkarlana



En Primera Persona

coopera

natural

Seferu

geolano

fiare

Baskaran gaztak

meabe






## kale izena pertsonaiaren izana

**BUSTINDUITARREN** kalea Amaña auzoan dago. Tiburzio Anitua eta Asola-Igartza artean dagoen kalea da. Bustinduitarrak izan ziren armagintzaren garapenaren bultzatzaile nagusiak denbora luzean. Bustinduitarren historioak XVIII. mendera arte garamatza. Garai horretakoa da Agustin Bustindui. Bustinduitar hau bere sasoiko armaginik famatuenerarikoa izan zen. Eibarko alkatea ere izan zen 1753. urtean. Geroago Frantzisko Antonio Bustindui agertzen da kroniketan. Hau ere armagina izan zen, eta baita alkatea ere 1784an. Ospetsuena Juan Esteban izan zen eta Gaspar Melchor de Jovellanos idazle espainiarrak asko goraiatu zuen bere armen kalitatea.



egileak:  
PATXI URIBE (pistola)  
MAIALEN JAUREGI (pertsonaia)

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



## DYA-kuak Bihotz Biriken Suspertiaren teknikia erakutsiko dabe bixar Untzagan

Bihotz-Biriken Geldialdi bat parian gertatuz gero zelan jokatu jakitziak dakan garrantziaz jendia ohartarazteko asmuarekin, "Zure eskuek bizitza bat salba dezakete" goiburuari jarraituta, DYA alkartiak hainbat jarduera antolatu ditu. Izan be, alkartiak azaldutakuaren arabera, bihotz-gelditze baten osteko lehen 5 miñututan egoki jokatuz gero, biziraupenerako aukeria %70era igotzen da. Gaiñera, Bihotz Biriken Suspertiaren (BBS/RCP) teknikia oso erraz eta azkar (10 miñutu baino ez dira bihar) ikasi leikiala diñue, "nahiz eta aurretik osasun formakuntzarik ez izan, edozeinen eskura dago". Teknika zelako errez ikasi leikian erakusteko asmuarekin, hainbat herritan egongo dira, nahi dabenari duan irakasteko prest. Eibarren bixar goizian, 10:00etatik 13:00etara egongo dira, Untzagan.

## Hazitain taldiak bidiari ekin detsa Hazilan eta Debegesaren eskutik

Apirillaz geroztik Hazilan egitasmuaren ediziño barrixa dago martxan Eibarren eta aurtan, barrikuntza modura, Hazitain izenarekin gaur egunian bat eginda dagozen talde bi eratu ditue. Taldia goi maillako titulaziñua daken eta lan esparru aniztetakuak diran 16 profesionalek osatzen dabe eta kidiak eraberritze prozesu batian murgilduta dabiz. Prozesuaren barruan Debegesak lan munduan txertatzeko tresnak zein baliabidiak euren eskura ipintzen ditue, ahalbidetzen detsez, horretarako arlo pertsonalari zein profesionalari erreparatuta. Parthartzailliak euren trebetasunen barri emoteko plataforma digital ezberdiñak erabiltzen ditue eta, bestiak beste, [www.hazitain.com](http://www.hazitain.com) web orrixa eta Twitterreko perfilla (@HAZITAIN\_) sortu ditue.

## Kontsumo Arduratsuaren II. Azokia egingo da bixar

Egoaizia GKE-k eta Aldatzenek alkarlanian garatutako "Hezkuntza unibertsala, gure konpromezua Iparraldean eta Hegoaldean" proiektuaren barruan bixar Kontsumo Arduratsuaren II. Azokia egingo da,

ambulatorio pareko parkian, 11:00etatik 14:30etara. Azokan bidezko merkataritzako eta tokixan tokiko elikagai ekologikuen erakusketia eta salmenta egingo dira eta, horrekin batera, ume zein helduendako baratza taillarrak, saski baten zozketia, bertsolarixak eta Afrikako musikaren emanaldixa, Sapali Percusión taldiarekin antolatu ditue. Ekimenaren aurkezpena martitzenian egin eben Egoaizia GKE eta Aldatzen alkarteko boluntarixuak, Idoia Sarasketa Gizartekintza zinegotzixak, Erika Martinez Goienerreko ordezarixak eta Leire Abanzabalegi Aza eta Porrúa alkarteko kidiak. Azaldutakuaren arabera, "Kontsumo arduratsua martxan jarri!" goiburuekin helburu bikoitza lortu nahi dabe antolatzailliak: justizia soziala eta ingurumenaren zainketa oiñarri dituan kontsumo eredu alternatibua ezagutaraztia eta, horrekin batera, herritarrengan kontsumo arduratsua bultzatzia. Proiektuak Udalaren eta Aldatze ikastetxeko Guraso Elkartearen babesa dauka eta ekimena antolatzen parte hartu daben eragilliak honek dira: Setem, Kidenda, Fiare banka etikua, Goiener Energia barriztagarrixak, bidezko merkataritzako produktuak, Baskaran gaztak, Meabeko ogixa, Natural denda ekologikua, Aza eta Porrúa Eibarko Kontsumo Ekologiko Taldia eta Kooperera.





## Jeltzaliak "denbora galdutzat" jo dabe oin arteko agintaldixa

Agintaldixaren erdixa bete dala eta, aurreko barixakuan horren balorazifua egiteko prentsaurrekua eskindu eban Eibar-ko EAJ-PNVk. Josu Mendicutte eta Elena Ibañezek nabarmendu zittuenen artian "sozialisten ikuspegi faltia, proiektu estrategikorik abiatu ez izana eta egindako inbetsiño txikixa" dagoz. Adierazi ebenez, "urte bi berba bittan laburtu geinke: galdutako denporia". Jeltzaliak esandakuari jarraituta, "Eibarrek ezin dau segidu PSOEren inprobisaziñuaren menpe, holan dihardue eta eguneroko kudeaketan. Hauteskundietan izandako emaitza onak akomodatzera eruan dittu eta ez dira errealidadia ikusteko gai. Beti argazkixaren eta titularraren billa, ardurak hartu barik, noraezian dabillen gobernu zonbi baten aurrian gaoz". Euren berbetan, "lau urteko erronkari heldu zetsen eta denporaren erdixa agortu dabe. Oindiok iñork be ez daki zein dan beraien hiri-eredua, ezta datozen bi urtiotan zer egingo daben be". Herrixak bizi daben egoerarekin kezkatuta dagoz: "Erabilli bariko 200.000 metro karratu industrial dakaguz, 1.000 etxebizitza huts baiño gehixago, 1.900 langabetu baiño gehixago, inguruko herrixetan baiño BPG per capita bajuagua, trafiko kaotikua, aparkaleku falta, espaloi estuak... egun batetik bestera konpontzen ez diran arazuak. Plan Estrategikua Eibar eraldatzeko baleko dokumentua da, baiña agintaldi erdira aillegauta be ez dabe plenora eruan, errealidadiarri aurre egiteko beldurra dakelako".

## Alkatiak "oso positibuak" jo dittu agintaldixaren lehen bi urtiak

Arcadio Benitezekin batera aurreko barixakuan egindako ageraldixan, alkatiak agintaldixak bete dittuan bi urtiotan egindako biharrarekin pozik azaldu zan. Berak "oso positibotzat" jotzen daben tartian "gobernu sozialistaren programia pausorik pauso betetzia ahalbidetzen daben proiektu estrategikuetan aurrerapauso haundixak emon dirala" azaldu eban. Ildo horretan, Eibarko Ospitala jasotzeko eta Errebelen egitten diharduen biharrak nabarmendu zittuan eta herrixan egindako hainbat lanetan (bestiak beste, Txomo, Egigurentarren, Eibarko Bizikleta Plaza eta Karmen kaleko parkiak eta Bidebarrietako lorategixak konpontzen) 8'5 milioiko inbetsiñua egin dabela gaiñeratu eban. Enplegua sortzeko zein enpreseri laguntzeko garatu dittuen hainbat ekimen be gogora ekarri zittuan, baita eibartarren bizitza kalidadia hobetzera bideratuta daguazten politika sozialak. Azken bi urtiotan bizi daben egoeriak sozialistak minorixan agintzera derrigortu dittuala esatiarekin batera, "horren eragiñez beste taldiekin negoziatzeko ahalegin berezixa egittera" bultzatu dittu eta herrixarekin lotutako kontuak bozkatzeko orduan sozialistak bakarrik geratu diran aldixak "oso oso gitxi" izan dirala nabarmendu eban alkatiak.



Alkatiak Arcadio Benitez lagun ebala egin eban agintaldixaren errepasua.

**ABBIE WHITE**

**matrikula zabalik**  
**2017 - 2018**  
 2 urtetik aurrerako umeendako klaseak irakasle ingelesekin

**English School**  
 Bista Eder 7 behea  
[abbiewhiteenglish@gmail.com](mailto:abbiewhiteenglish@gmail.com)  
 informa zaitez  
 605693147

**Funeraria·Ehortzetxe**  
**Mugica**

**EIBAR**

**Beilatokia**  
**Funeuskadi Eibar:**  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**

**Beilatokia:**  
**SIGMA Industrialdea**  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



## ASPACE

### Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

ASPACE GIPUZKOA Familien arteko elkarte bat da. Zerbitzu ezberdinen artean Hezkuntza Bereziko eskola dago. Gaur egun 18 ikasle daude gure Eibarko eskolan, Haur Hezkuntzatik hasita Lehen Hezkuntza arte. Helburua ikaslearen garapen integrala bermatzea da, beraren bizi kalitatea zein familiarena hobetzeko asmoz. Eskola ingurunean eta baita ingurune sozialean ere parte hartzea handitzeko, aniztasuna, elkarlana eta errespetua dira ardatz nagusiak.

Gure eskolako egunerokotasunean, errutinak, ekintzak, jolasak... , esku hartzea orokorrean, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzen dira, parte hartzen eta jolasean ikasten baitugu: musika, kirola, ortua, eskulanak, ...

Arreta Goiztiarreko zerbitzua ere badugu, familian eta ingurune naturalean oinarritua. Ongizate familiarra eta garapen pertsonala lortzeko bideratutako zerbitzua da. Nola lortuko dugu hau? Familiei babesa eta aholkularitza eskainiz, egunerokotasunean ikaskuntza aukerak areagotuz, etengabeko jarraipena eginez,...

### Ekintza nagusiak

- Garun paralisiaren nazioarteko eguna
- ASPACE eguna
- Aisialdiko ekintzak: olinpiadak, aratosteak, San Andres eguna, Olentzero, San Fermin, irteerak,
- Familiei babesa: familien arteko kafeak, anai-arreben topaketa, boluntariotza, etxebizitza zerbitzua.

**Telefonoa:**

943216055 / 943316160

**e-maila:**

eibar1@aspacegi.org

**Helbidea:**

Santaines kalea, zk.g.

**Kontaktua:**

M<sup>a</sup> Jesus Gómara



Gaur egun 18 ikasle daude Eibarko eskolan.

## HIRIKITEN, hiriaren ikerketarako elkarte

### Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

Hirikiten, 2014. urtean sortutako lantaldea da. Hiria, elementu bizi eta konplexuz osatutako ekosistema dela kontsideratuz, taldeak, honen inguruko ikerketa proaktiboak bultzatzen ditu.

Hirikitenek, pertsona, instituzio, talde, elkarte eta kolektibo ezberdinekin modu aktiboan lan egiten du, diziplina arteko talde eta proiektuen bitartez ezagutza jasoz eta elkarbanatuz. Proiektu errealetan lan egitea gustuko dugu, baita egunerokotasunean ematen diren arazoei konponbidea aurkitzea ere.

### Zerbitzuak

- Tailerren produkzio eta dinamizazio lanak.
- Bitartekaritza lanak.
- Hitzaldi eta mahainguruak.
- Gidatutako bisitak.
- Hiriaren hobekuntzarako aholkularitza.

### Egindako lanak

- Eibarlab's: teknologia berriak hirian aplikatzeko sentsibilizazio programa.
- FITEKANTROPUS, La Balanza, Limako (Peru) auzo-lokalaren proiektua: CITIO elkarteak beste eragile batzuekin elkarlanean koperazio proiektua.
- Berreibar/Biharrian: Eraikin industrial hutsak berrerabiltzeko ikerketa proiektua.

**e-maila:**

hirikiten@gmail.com

**webgunea:**

www.hirikiten.com

**facebook:**

facebook.com/hirikiten





## Amaitu da "jende zoragarriaren" ikasturtea

Debabarreneko Esperientzia Eskolaren XIII. edizioak ateak itxi zituen aurreko barixakuan. Ikasleek ikasturte amaierako diplomak jaso zituzten familia eta lagun artean, baina paper zati bat baino gehiago eraman zuten etxera. Ezagutza handiagoa, bizitzan aktibo jarraitzeko gogo eta, batez ere, lagunak. Ez pentsa, hala ere, eurak besoak gurutzaturik geratu direnik, bi proiektu berri prestatu baitituzte.

**D**ebabarreneko Esperientzia Eskolaren XIII. edizioa hasi baino lehen ikasle denek "beldur pixka bat" zutela aitortu zuen kurso amaierako ekitaldian Martxel Larrea ikasleak. Ikasturte hasieran 50 urtetik gorako 21 lagun bildu ziren (tartean 16 eibartar) kezka sozial eta kulturalak partekatze-ko; egungo gizartea ulertu, aztertu eta ezagupenak eguneratzeko; parte hartzea sustatzeko; eta ikasketa eta heziketa iraunkorra bultzatzeko. Urriaren 25ean, kursoa hasteko egunean, beldurrak uxatu eta gogoz heldu zioten erronka berriari.

Larreak aitortu zuenez, "hizlari apartak jaso ditugu, jakintsuak izateaz gain, gaiak ondo azaldu eta gure zalantzak argitu zituztenak". Denetariko gaiak tratatu dituzte ikasturtean zehar (osasuna mantentzea eta hobetzea, teknologia berriak, komunikazio gaitasunak, filosofia, psikologia, astronomia, ekonomia, zuzenbidea eta garapen jasagarria, besteak beste), eta horrek "eskolara lehen aldiz doan umearen ilusioa berriz sentiarazi dit", adierazi zuen Felipe Zubiate ikasleak.

### Ezagutzaren uzta beteta

Hainbat lagunek animatuta

eman zuen izena Zubiatek Debabarreneko Esperientzia Eskolan. "Jendea ezagutuko duzu", esaten zioten denek, eta kurso amaierako ekitaldian adierazi zuten, "ezagutu dudak jendea zoragarria izan da". Berba horiek entzutean beste ikaskideen hitz politikak jaso zituen hizlariak, denek partekatzen dutelako iritzi bera. "Jende paregabe eta zoragarria zarete, eta kurso paregabe eta zoragarria pasarazi didazue".

Larreak ere izan zituen ikaskideekiko berba gozoak. "Jende on eta jatorra batu gara, eta ondo moldatu gara", adierazi zuen denek eskerrak eman aurretik, "asko eman didazue". Baina ikaskideak goratzeaz gain, Eva Perez Albeniz Debabarreneko Esperientzia Eskolako koordinatzailearen papera goraiatu zuen. "Nagusiak garenez jendeak pentsatzen du formalak garela eta errespetua daukagula, baina hori ez da beti horrela eta berak beti aurpegi ona jarri digu", esan zuen ikaskideen barre eta onarpenen artean.

### Proiektuak Soraluze eta Eibarren

Ezagutza xurgatu eta partekatzeaz gain, ikasturtean zehar bi proiektu garatu dituzte Soraluze



eta Eibarko herritarrei hainbat ekarpen egiteko: 'Soraluzen luzatu' eta 'Jantzitako zakarrontziak'.

Goyi Vicente ikasleak adierazi zuenez, "gaitasun fisikoa hobetzeko pentsatutako ekimena da 'Soraluzen luzatu'". Ikasten elkarrekin Eibarren kokatzen dituzte bere jarduerak batez ere, eta eskualdeko herrietara zabaltzeko asmoa erakutsi nahi izan dute horrela. Pilar Arin hezkuntza fisikoko irakasleak luzaketek eskaini ditzaketen onuren gainean hitzaldia eman zien, eta ekimen honekin Soraluzen luzaketak egiteko taldea sortzea da asmoa.

'Jantzitako zakarrontziak' proiektuarekin Eibarko zaka-

rrentzien erabilera bultzatu nahi da eta 'Eibar garbia: erabili nazazu' da bere goiburua. Zubiatek adierazi bezala, "gizatasun faltaren inguruan eztabaidatu dugu ikastaroan zehar, eta zakarrontziak gero eta gehiago erabiltzen direla ikusten badugu ere, oraindik zakar asko lurrera botatzen da". Kexa hutsetik haratago joan nahi izan dute Esperientzia Eskolakoek, "eta ikuspegi konstruktibo batetik, sormena erabiliz, zakarrontziak janzteko pentsatu dugu". Neurri honen bitartez, "zakarrontziak nabarmendu egingo dira eta erabiliak izateko gonbidapena egingo dute".

## PERU BOLLAR BILBAO

2017ko maiatzaren 25ean hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.











**2017ko Euskal Jaia**  
**MAIALEN BELAUSTEGIK**  
**ateratako argazki gehiago**  
**etakitto.eus**





Kazetaritza egiten du Gervasio Sanchezek. Kazetaritza letra larriekin. 30 urte inguru daramatza munduko toki ilunetan gertatzen direnak kontatu eta irudietan islatzen, eta sari ospetsuak lortu ditu egindako lanagatik. Balkanetako gerrako basakeriak bere azalean bizi izan zituen eta Sarajevoko setioan jasandako sarraskiaren irudiak ekarri ditu Eibarrera. 'Sarajevo guerra y paz' erakusketa hartuko du udaletxeak ekainaren 18ra arte, guda eta bake sasoiko argazkiak alderatzen dituen esposizioa.

## GERVASIO SANCHEZ

(KAZETARIA ETA ARGAZKILARIA):

# “Gatazka armatuetan KOLDARKERIA HANDIA DAGO”

– Zer ikusi zenuen orain dela 25 urte Sarajevora iritsi zinenean?

Europar Batasunaren atzeko patioan gertatzen ari zen gerra basatia. Bizilagunak euren artean hiltzen ziren eta, horrelakoak gertatzen direnean, pertsonak are intoleranteagoak dira ezezagunekin baino.

– Antzeko egoerarik bizi izan zenuen aurretik?

Gatazketan esperientzia neukan, Latinoamerikan lan asko egin bainuen, baina ez zeukan zerikusirik Bosnian ikusitakoarekin. Nahiz eta El Salvador, Nikaragua eta Guatemalako gatazketako, edo Txileko eta Argentinako diktaduretako egoera odoltsua eta gogorra izan, nire ulertzeko gaitasunak gainezka egin zuen Balkanetako biolentziarekin. Bizilagunak euren artean gizatasuna kentzen ikustea gogorra da. Hiltzaileak eta hildakoak ez dira gerretako protagonista bakarrak; bertan gertatzen

dena isiltzen dutenak, beste toki batera begiratzen dutenak, nortzuk hil behar diren markatzen dituztenak, koldarrak orhar, protagonistak dira baita ere. Gatazka armatuetan koldarkeria handia dago gertatzen ari denari aurre egiteko orduan. Gizartearen zati handienak nahiago du isildu eta ezarritako gidoiari jarraitzea, besoa altxatu eta protestatzea baino.

– Ibilbide luzea daukazu eta sari ospetsuak lortu dituzu kazetari eta argazkilarri moduan. Zein ekarpen egiten saiatu zara?

Gizartearentzat garrantzitsua eta ezinbestekoa den zerbait, kazetaritza. Kontuz, publikatzen den guztia ez da kazetaritza. Publikatzen diren gauza asko nahasketen nahasketak dira eta sarritan kazetaritza-enpresen interes estrategikoei lotuta daude. Beraz, gaur egun gero eta zailagoa da hedabideetan kazetaritza ikuskatzea. Ka-



zetaritza egiten saiatu nahiz beti, hau da, herritarrek gertatzen dena ulertzea, eta toki ezkutatu eta ilunetan egindako lanari esker gaiak sakon tratatzea. Kontua da gutxi ikusten den kazetaritza dela, eta gaur egun are gutxiago.

– Kazetaritza lanbideak aldaketa asko bizi izan ditu 25 urtetan, baina gerrek jarraitzen dute.

Gerrek jarraitzen dute eta jarraituko dute. Negozio handia dira. Ia beti aurkituko



Gerra eta bake sasoiak alderatu ditu argazkietan Sanchezek "Sarajevo guerra y paz" erakusketan.



*Horrela geratu zen Sarajevo-ko liburutegia bonbardaketaren ondorioz.*



duzu zergatik hiltzen edo sufritzen ari den ez dakien jendea, baina milaka kilometrotara gerrak zein esanahi duen eta berarekin nolako negozioa egin daitekeen ondo dakien jendea egongo da. Inbertsioa, prestakuntza, eta kazetari espezializatuek eta ibilbide luzeena dutenek gazteak gidatzea behar du kazetaritzak. Hori gertatu ezean, urte batzuk barru kazetaritzarekin zerikusirik ez duen zerbaite egingo da.

**– Erakusketan gerraren markak ikusi daitezke, 25 urte geroago, eraikinetako paretetan. Zuri ere markak geratu zaizkizu?**

Kazetariak protagonismotik urrundu behar gara uste dut. Argi dago gatazka gune batera zoazenean jasotzen dituzun inpaktuak iraun-

korrek direla eta kalte egiten dizutela. Jota uzten zaituzte. Hala ere, zu bertara zozaz, nahi duzun denboran geratzen zara eta bueltan zatoz; gerra jasaten dutenak, ordea, han geratzen dira, behartuta, ihes egin ezinik, eta ihes egiten badute ere, ostikoka tratatzen dituzte gaur egun errefu-



xiatuen krisiarekin ikusten dugun moduan. Kazetarien lana zaila da, baina zailagoa da gerretako biktimen lana.

**– Gerretako argazki ikonikoak daude, gertakizun historikoak kontatzen dituztenak, baina nahikoak dira?**

Argazki, liburu, testu literario edo dokumental batek mundua aldatu dezakela pentsatzea inozoa da. Herritarrek egin behar dutena izugarrikeria hauen aurka mobilizatzea, gobernariak argibideak eskatzea, gobernariak gauzak serio hartzeko presioa egitea eta norberaren zilborrari ez begiratzea da. Gaztatek zuri eragiten ez badizute, kasurik ez egitea da normalena eta, horrela izanda, erabakiak hartzen dituztenek nahi dutena lortzen dute.



## ETEL ALONSO ARRIZABALAGA

2017ko maiatzaren 19an hil zen

**“Ez zaitugu inoiz ahaztuko, beti gurekin egongo zara”**

**Familiaren partez, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.**





**Axier Gisasola (Armeria Eskolako ikaslea):**

## «Gure gaitasun profesionalak eta pertsonalak identifikatu ditugu»

*Axier Gisolak Ignazio Zuloaga Institutuan batxilergo ikasketak amaitu eta gero, Armeria Eskolan "Produzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan" zikloa egin du Ethazi (Etekin Handiko Zikloak) erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa probatuz. Aurten jarri da martxan metodologia hau Armeria Eskolan, elektronika, elektrizitatea, mekatronika eta fabrikazio mekanikoko ziklo gehienetan. Axierrek metodologia aproposa dela uste du eta errepikatuko luke teknika honekin funtzionatzen duen beste zikloren bat baina hobekutzak ere behar dituela azpimarratu du.*

### – Nolako izan da Ethazi-ren metodologia jarraitzea?

Egia esateko, sistema nahiko arraroa egin zitzaigun hasiera batean. 26 ikaslek hasi genuen zikloa, eta hiru irakasle bakarrik egon dira. Lan munduarekin lotutako 7-8 erronka bidali dizkigute eta guk 8 taldeetan bilduta egin dugu lan. Azken finean, gure gaitasun profesionalak eta pertsonalak zeintzuk diren erakusteko baliotza izan digu. Bi gaitasun horiek haintzat hartuta, mundu profesionalerako prestatu gara, adibidez, taldean lan eginez edota jendearekin.



Jostailuzko kainoiak diseinatu eta egin dituzte Alex Pagaldaik eta Axier Gisolak.

daurrean aurkezpenak eginez. Hau guztia baloratu egiten zuten, esaterako talde-lanean jardun behar genuenean, bakarrik lan egitea eta abar.

### – Hasiera batean bazenekien erronken bitartez ikasiko zenuela?

Ez. Guretzako sorpresa izan zen. Ziklora apuntatu ginenean ez genekien sistema honekin ikasiko genuenik, beste ziklo "normal" bat zela uste genuen. Ikasturtea hasi zenean, irakaskuntza modua aldatu zutela esan ziguten eta erronken bitartez jardungo genuela.

### – Nolako erronkak izan dituzue?

Adibidez, jostailuzko kainoiak diseinatu behar izan genuen eta talde bakoitzak bere diseinua egin zuen. Erronka polita izan zen. Interneten ideiak begiratu genituen eta pixkanaka fresagailuan eta tornuan landu genituen. Emaizta onak irten dira. Bestalde, esekilekuak ere egin ditugu, izan ere, ikasgelak berrituz zituzten eta ez zegoen esekilekurik. Beraz, orain geuk egindakoak daude. Talde bakoitzak bere proiektua egiteko, hasieran diseinua egin behar du, ondoren planoak egin, prozesu orriak bete, ... eta amaitzeko klasearen aurrean aurkeztu. Kainoiaren kasuan bozkateta ere egin genuen lanik txukunenak aukeratzeko.

### – Pertsonalki positiboa iruditu zaizu irakaskuntza modua?

Bai, positiboa da, baina lehenengo aldia izan denez aldaketa batzuk ere egin behar direla uste dut. Aurten ikasle gehiegi izan gara esango nuke halako metodoarekin funtzionatzeko. Alde batetik irakasle gutxiegi zeuden eta bestetik material faltak ere eragina izan du. Denok behar genituen makinak lan egiteko baina ezin genuen aldi berean lan egin. Ikuspegi horretatik sarritan gelditu egon behar izan gara, zain. Bestetik ordea alde positiboa ere badauka, gaitasun teknikoak lortu ditugula uste dut eta lan mundurako irtenbideak ere sortu zaizkigula. Berriz ere parte hartuko nuke halako programa batean, baina aipatu ditudan hobekuntzak kontuan hartuta.

**Iradi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelertatik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**



## The Vartools, gauerditik aurrera zuzenean Koskor tabernan

Gaur gauerako kontzertua antolatu dute Koskor tabernan, gauerditik aurrera zuzenean jardungo duen The Vartools talde eibartarrarekin. Emanaldian laster kalean izango den disko berriko hainbat abesti estreinatuko dituzte, baina horiekin batera aurretik ezagunak diren beste hainbat ere eskainiko dituzte eta tarte-

an rock'n'rolleko klasikoren bat edo besteren baten bertsioaren bat ere jo dezaketela aurreratu dute.

Gaur egun Ion Larreategi (ahotsa eta baxua), Borja Etxebarria (bateria), Walter Tuzzeo (pianoa / Hammond), Mikel Gauger (gitarra) eta Fran Retenaga (gitarra) taldekideek osatzen dute The Var-



Orain dela hiru urte sortu zen Eibarko musika taldea.

tools. Taldea 2014an sortu zen eta harrezkero kontzertu ugari eman ditu Eibarren zein Eibartik kanpora, beti ere arrakasta handiarekin. 'Electrified' izeneko bere lehen lana Spotify, Badcamp, Soundcloud eta Itunes plataformetan dago eskuragarri. Taldearen musika rock'n'roll estilokoa da batez ere, baina Led Zeppelin, Guns'n'roses, Deep Purple eta antzekoen eragina ere badu, taldeko kideek eurek diotenez. Kontzertura sartzea doan izango da.

### GAZTE EGUNEKO

#### kamiseta lehiaketako irabazlea aukeratu dute

Aurtengo San Juan jaietan, Gazte Egunerako kamisetaren diseinua aukeratzeko Jaixak Herrixak Herri-xandakok antolatutako lehiaketak irabazlea dauka, finalista biei jendek emandako boto guztiak aurreko domekan zenbatu eta gero. Hala ere, Gazte Egunerarte ez dute ezer esango, sorpresa izatea nahi dute eta. Bestalde, egun horretarako bazkarirako txartelak barixakuero, 18:30ean salgai ipiniko dituzte Depor azpian.



## Drogetenitturri aldizkariak KOORDINATZAILEA behar du

### BALORATUKO DENA

EUSKARADUNA IZATEA, ONDO IDAZTEN JAKITEA, KAZETARITZA IKASKETAK IZATEA, QUARK ETA PHOTOSHOP ERABILTZEN JAKITEA, ERMUA EDO MALLABIKOA IZATEA, ETA LIDERGO ETA KOORDINAZIO GAITASUNA IZATEA

Interesatuak [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera bidali beharko dute curriculuma **ekainaren 7a baino lehen**

ARABA EUSKARAZ 2017



ekainaren 28an

IRTEERA

09:00etan Ego-Gainetik

AUTOBUS

12€



19:00etan

BUELTA

ZERBITZUA

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte



# Algak

**Gure lurraldean, orain arte, ez da egon algak jaketeko ohiturarik,** baina munduko lurralde askotan (Japonian, Txinan, Hawaiiin, Zelanda Berrian...) euren eguneroko elikaduraren parte izan dira aspalditik. Itsasoko landare edo barazki hauek mineral, bitamina, zuntz, proteina... aberatsak izateaz gain, gorputza garbitzeko ere oso lagungarriak dira. Hala ere, badaukate kontuan hartu beharreko osagaiak. Algak iodo asko daukate; beraz, tiroidesa kal-

tetua daukaten pertsonen (hipertiroidismodunek bereziki) ez lituzkete hartu behar, kontrolik gabe behintzat. Gauza bera gertatzen da tentsio altua dutenekin, algak gatz mineraletan aberatsak dira-eta. Pertsonako eta plater bakoitzeko 2 zm alga jatea nahikoa da. Euskal Herritik gertuenen, Galizian aurki ditzakegu algak. Ondoren, Galizian ditugun alga batzuen erabilerak taula baten adieraziko dizkizuet (*hurrengo kolaborazioan gehiago aterako ditugu*):



**jaione yeregi**  
TEKNIKARIA DIETETIKA  
ETA NUTRIZIOAN

Alga	Aberastasuna	Gordinik	Egosita	Frijituta	Laban	Gisatuta
<b>Wakame:</b>	Kaltzioa, iodoa, proteinak	Entsaladetan, gazpatxoetan, <b>10 min beratzen</b>	Zopetan, patatekin, barazkiekin, arrozarekin, zerealekin, ensaladillatan, saltsetan <b>10/20 min.</b>	Tipularekin erregosita betegai eta garnizio gisa, patata tortillan	Enpanadetan, rollitoetan, "Quiche"-Tan, pizzetan ogietan, gailletetan	Erregosietan
<b>Dulse:</b>	Bitamina A eta C, proteinak	Entsaladetan, gazpatxo eta saltsetan <b>beratzen minutu 1</b>	Eskaldatueta, makarrietan, egosketa motz eta baporean <b>2 minutu</b>	Tortilla frantsesan, krepetan eta salteatueta	Gainerreetan	
<b>Itsas Espagietia:</b>	Burdina, potasioa eta bitamina C	Txukruta bezala onduta, entsaladetan, <b>40 minutu beratzen</b>	Baporean egindako arroz integralarekin, <b>35 minutu</b>	Tipularekin erregosita garnizio gisa, betegarri gisa, rabak bezala arrautzatzatuta	Enpanadilletan, pizzetan, "Quiche"-Tan.	Pisto eta lapikokoetan
<b>Kombu:</b>	Zuntz sedagarriak eta mineralak		Luzerako egosketetan, lapikoko eta saldetan <b>20 minutu presioan edo ordubete egosiz</b>	Patata tortillan, erregosita garnizio gisa, betegarri gisa		Lapikokoetan

## HARREMAN OSASUNTSUAK. Beharrak asetuta?

**Behar erlazionalak kontaktu interpertsonaletan berezkoak dira,** harreman osasuntsuak eta gogobetekoak izateko beharrezko osagaiak. Pertsonok, bitaminaz gain, osasuntsuak egoteko harremanak behar ditugu. Izan ere, harremanetan, gure garapen pertsonalerako oinarrikoak diren behar hoiiez elika gaitezke. Inor barik behar hauek asetzen saiatzea, posiblea ez den eta sufri-mendua dakarren misioa da.

Richard Erskine Doktoreak 8 behar deskribatzen ditu bere ikerketan: Segurtasuna, Balidazioa, Menpekotasuna, Autodefinizioa, Inpaktua, Partekatutako esperientzia, beste batek inizatiba hartzearen beharra, eta Maitasuna adieraztearen beharra.

- Ahultasun fisiko eta emozionala babestuta ditut? Kritikaz eta irainez libre sentitzen naiz?
- Berdin edo desberdin sentitzea edo pentsatzea alde batera utziz, balidatua edo baloratuta sentitzen naiz?
- Norbaiten mende egon edo norbaitengan fidatu naiteke?
- Nor naizen, nire interesak eta ideak komunikatu ahal ditut?
- Beste baten arreta erakarri eta begirunez hartzea posiblea dut?
- Beste batekin pareko esperientziak partekatzen ditut?
- Beste batek inizatiba hartzen du nik ezer esan barik?



- Maitasuna adierazteko beharra sentitzen dut?

Harreman bat erreferente moduan hartzen badugu zenbat behar asetuta ditugun ikusteko edo pentsatzeko, posible da hauetarikoz batzuen falta somatzea. Hau ez da harrizkoa, harreman perfektua ez delako existitzen. Interesgarria dena, nahiz eta ez gertatu aldi berean ezta harreman bereberetan, behar guztiak asetuta izatea da.

Zentzuk dira asetuta ez izatearen ondorioak?

- Era puntualean asetugabe egotea, prisa, ondoeza eta urduritasun moduan esperimendu daiteke.
- Noizbehinkako esperientzia denean, frustrazio edo amorru moduan adierazi daiteke.

- Jarraitua gertatzen denean, energia eta esperantza galera bilaka daiteke.

Psikoterapian, beharren diagnostikoak, asetsun maila, asetzeko baimena, bilaketa mota eta osasunean daukan inpaktua identifikatzeko uzten digu.



**arrate garitaonandia**  
PSIKOLOGO/PSIKOTERAPEUTA





## Bandoak dioena errealitate bihurtzeko bidean tinko

Eibarren euskara gutxi entzuten zela eta, hori aldatzeko ilusioarekin ekin zion bideari ...eta kitto! Euskara Elkartea. Euskaltzale batzuren eskutik elkartea jaio eta lehen pausoak eman zituenetik 25 urte igaro dira eta oraindik ere gure herrian euskara gehiago entzun nahiko genuke. Hala ere, ez dezala inork pentsa urte hauetan egindako beharra alferrikakoa izan denik, ezta gutxiago ere! Mende laurdeneko ibilbidean asko dira euskararen mesedetan lortutako "garaipen" txikiak (eta batzuetan ez horren txikiak) eta egindako ahaleginak merezi izan duela zalantzarik ez daukagu. Horregatik, zuen guztien laguntzarekin Eibar euskalduntzeko bidean aurrera lanean jarraitzeko asmo sendoa daukagu, sorrerako ilusio berarekin, elkartearen sorrera eragin zuen hasierako asmo hori bete dela ikusi arte. Eibar euskalduna izatea lortu arte.







Ideologia, sentsibilitate eta adin guztien ginetik, orain dela 25 urte hasi zen euskadunen sarea sortzen.

Orain dela 25 urte, 1992ko maiatzaren 7an, Kamarroak elkartearen prentsaurrekoa eman ondoren, Untzagako plazan elkartearen izaera anitza isladatzen zuen talde argazkia atera zen. Proiektuaren inguruan adin, ideologia eta sentsibilitate desberdineko euskalzaileek egin zuten bat, Eibarren euskara berreskuratzeko helburuarekin. Hori izan zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen lehen agerraldi publikoa. Hasierako pausu horiek gogora ekartzeko talde eragilean lanean jardundako Elena Laka, Rakel Irusta, Jasone Bilbao eta Juanjo Araolazarekin elkartu gara.

Urtebete lehenago, 1991an, eman zuten lehen pausuak ...eta kitto! Euskara Elkarteak Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako soziolinguistika ikastaroan. Jasone Bilbao orduan Hizkuntzaren Pedagogia ikasten zegoen eta ikastaroan parte hartu zuen. Ondo ezagutzen zuen Fernando Muniozguren Udaleko Euskara Saileko burua; bere enkarguz zenbait lan egiten zituen (merkataritza kanpainak, kale neurketak...). Aldizkariko publizista moduan ere ibili zen Jasone, eta, elkarte sortu zenean, idazkari jardun zuen hamar urte inguru. "*Ilusio handia zegoen garai hartan eta baliabide gutxi. Talde eragilea biltzeko dei asko etxetik egiten genituen eta aktak idazmakinez egiten ziren. Gero Jon Etxaberi ematen nizkion, kopiak ateratzeko*", gogoratzen du Ja-

sonek. "*Elkarte sortu eta gero, Fernando eta biok astero bi aldiz Leioara joaten ginen Hizkuntza Plangintzarako diplomatura ateratzera*". Gaur egun, Azkoitiko Udaleko euskara teknikaria da Jasone.

Soziolinguistika ikastaroa amaitu zenean, han ibilitakoek inguruko herrietako euskara elkarteetara jo zuten informazio bila. Hamar pertsona inguruko talde aintzindaria handituz joan zen eta herriko 60 euskaltzaleren babesa lortu eta gero, Zuzendaritza Batzordea osatu zen gestioaz eta kanpo harremanez arduratzeko. Juanjo Araolaza Elkartearen lehen presidentea izan zen. Ikastolen mugimenduaren sorreran bazuen esperientzia, eta Elgoibarko Izarran jardundakoa zen. Eibarren oso pertsona ezaguna zen Juanjo Araolaza-osasun arloan egiten zuen lan, podologo bezala- eta Fernandok ez zuen zailtzarik izan elkartearen presidentea izan behar zuela esan zionean. "*Garai hartan Eibarren oso gutxi hitz egiten zen euskaraz, euskaldunok gure artean erderaz egiteko ohitura genuen; kalean ez zen egiten, kontzientziarik ez zegoen eta beharrezkoa ikusi genuen elkarte sortzea, hartuemanak euskaraz egiteko*". Gauzak asko aldatu dira, euskararen ezagutza maila asko handitu da, baina oraindik ere lan handia egin behar dela eta euskara ez dela gauza puntualetan gelditu behar uste dute.

...eta kitto! izena jartzea onartu zen. 1982ko abenduaren 21ean, Mikel Larrañaga alkatea zela ateratako "Euskaraz..."



Juanjo Araolaza eta Elena Laka Korrikaren lekukoa hartzen.





Jasone Bilbao, Elena Laka, Rakel Irusta eta Juanjo Araolaza, elkartea sortu eta 25 urte geroago.

eta kitto!" izeneko bandoa eta sei urte geroago kaleratutako ...eta kitto! hilabeteak hartu zituzten kontuan. "Euskara taldea sortzeko bidean zegoenean, aldizkariaren ardura eta gestioa eskaini zion Udalak talde sortzaileari, eta, horrela, 1992ko maiatzaren amaieran, Untzagako talde argazkia atera eta egun gutxitara, kaleratu genuen lehenengo aldizkaria elkartearen eskutik", gogoratzen du Elena Lakak. Elena Laka abokatuak bere bulegoa zabaldu berria zuen Eibarren eta Pedro Laka aitaren bitartez izan zuen elkartearen berri. Elkarteko presidente-ordea izan zen, eta, apurtxo bat geroago, elkarteko presidentea. Gaur egun, abokatu moduan jarraitzen du lanean, eta, horretaz gain, Euskaltzaleen Topaguneko presidentea ere bada.

Rakel Irustak ere oso gertutik bizi izan zituen hasierako momentu horiek. Correosek Eibarren duen bulegoan aspaldi egin du lan eta eibartarrotzat aurpegi ezaguna da oso. Hasierako bilera horiek oso ondo gogoratzen ditu Rakelek: "Arrate Kultur Elkartean bilera asko egin ziren, eta hasieran Arrate Kultur Elkartearen barruan euskara batzorde moduan sortzeko asmoa egon zen, baina azkenean ...eta kitto! Euskara Elkarteak bere bidea jarraitzea erabaki zen".

Udala, Ikastola eta Lantegi Eskolarekin berba egin eta gero, Markeskua Jauregia izan zen elkartearen lehen egoitza. "Beti ibiltzen ginen lokal bila, baliabide gutxi genuen garai hartan eta lokalena beti zen arzoa", dio Rakelek. Lan talde desberdinak sortu ziren elkartearen baitan: motibazioa, gazteria, jaiak, kultur gintza, literatura eta komunikabideen batzordea. Hasierako urte haietako lanerako gogoia eta ilusioa azpimarratzen ditu Rakelek: "Jendeari edo-

zein lan egiteko deitzen genionean, erantzuna demasekoa izaten zen, mundu guztia zegoen lanerako prest. Gero, apurka-apurka, hau motelduz joan zen".

1992ko udazkenean, Armeria Eskolan, Elkartearen lehenengo batzar nagusia eta aurkezpen-ekitaldia egin zen. Araolazak gogoan dauka "areto nagusia bete egin zela eta Mari Karmen Garmendia ekartzea lortu genuela". Ekitaldian Fernando Muniozgurenek ondo azaldu zuenez, "denon ondarea den euskara berreskuratzeke ahaleginetan eta bizitza sozialeko arlo guztietara zabaltzeko ahaleginetan sortu da ...eta kitto! Euskara Elkartea". Horretarako sigletatik aparte edo horien gainetik jarduteko beharra azpimarratu zuen, "era horretan lortuko dugu euskara eibartarron faktore integratzaile eta elkartzaile bihurtzea". Garmendia, Araolaza, Laka eta Muniozguren ez gain, Aurora Baskaran alkatesa eta Siadekoko Iñaki Larrañaga ere izan ziren, dantzari, musikari eta bertsolariz lagundutako egun berezi eta hunkigarri hartan. Momentu hartan 240 bazkide zituen elkarteak. Korrikan Elena eta Juanjok parte hartu zutela eta hori ere oso une hunkigarria izan zela gogoratzen du Jasone Bilbao.

Garai hartan krisialdi ekonomikoa zen nagusi. Jende asko langabezia gelditu zen, eta "ez zen garai ilusionantzea berez", dio Elena Lakak: "Elkartea sortu zen benetan nahia zegoelako, lan mordo egin zelako, jendea bilatu zelako eta ondoren jende guzti hori saretzen joan zelako". Guztiak bat datoz "egin zena Fernando Muniozgureni esker izan zela" esaterakoan, eta gazteengan zeukan konfidantza eta Euskara Elkartearen Topagunearen sorreran ere izan zuen zeregina azpimarratu dute behin eta berriro.

## Aintzindaria

Oposizioa egin eta Aurora Baskaran alkate zela hasi zen

### FERNANDO MUNIOZGUREN

Eibarko Udaleko euskara-teknikari 1988ko irailaren 1ean. Lanpostu berean jarraitu zuen 2005. urtera arte, 17 urtez.



la kontaezinak dira urte horietan egindako lanak. Bera Udalean hasi aurretik abiatutako lana baldin bazen ere, lan handia egin zuen euskara-zerbitzuak irakaskuntza euskalduntzeko. Ikastetxe guztietan egin zen ikerketa sakon batean oinarrituz ekimen ugari egin zen ikastetxe publiko guztietan D eredia ezartzeko. Ikerketa horren emaitzetako bat izan zen ikastetxeetan egiten zen lanaz gain, beharrezkoa zela haurren aisialdian ere euskara erabiltzeko aukerak sortzea, eta hortik sortu zen Astixaren proiektua. Ez zion sekula lan-eremu horretan eragiteari utzi. Urte batzuk geroago *Errota* gazteleku bezalako proiektuak hezurmamitu zituen.

Hainbat udaletako euskara teknikariekin "Transmisio kanpaina" deitu zitzaiona egosten jardun zuen. Ezaguna egin zen Euskal Herriaren zehar "Biberoiaren kanpaina", guraso euskaldunei "Eman zeurea" (ama bat umeari bularra emanaz) eta guraso erdaldunei "Dale lo que tienes" (aita bat umeari biberioa emanaz) izenburuarekin gauzatu zena.

Edozein kasutan, komunikabideetan euskararen presentzia handitzea izan zen Fernandoren lan-eremu kuttunena. Udalean lanean hasi eta segiduan argitaratu zen ...eta kitto! hilabeteak hartu zituen lehen zenbakia, egunkari formatoan eta kioskoetan banatzen zena. 1991an soziolinguistika ikastaroak antolatuta zituen, eta bertaratutako gazteak animatu zituen euskara-elkartearen egitasmoa. Bilera mordo egin zituen proiektua bati eta besteaz alalduz, animatuz, konbentzitu... Euskara Elkartea jaio eta aste gutxira, 1992ko maiatzaren, ...eta kitto! aldizkaria argitaratzen hasi zen elkartea. Euskaltzaleen arteko gogoak asatzea eta euskaldunak erakartzea helburu zuten egitasmo asko asmatu eta egin ditu elkarteak. *Berbia Emon* programa (eskola-orduz kanpo herrian antolatzen diren jarduerak euskalduntzeko programa), gazteentzako bertso-jaialdiak, merkataritzan euskara sustatzeko programak, mintzapraktika egiteko *Berbetan* egitasmoa, kultur emanaldiak, hitzaldi-zikloak, *Harixa emoten* literatura tertuliak...

1996an osatu zen Euskara Elkartearen Topagune-ko talde eratzailean jardun zuen Fernandok, eta lehendakari izatea egokitu zitzaion lehen hiru urteetan. Eibar.org taldeko kide ere izan zen, eta azken urteetan bere bloga ere sortu zuen. 2006an laga egin gintuen.





...eta kitto! Euskara Elkarteko lantaldea.

# Mende laurdena Eibar euskalduntzeko biharrian

Mende laurdenera ailegau da ...eta kitto Euskara Elkartea eta, atzera begira hasiz gero, Eibar euskaldunagua lortzeko asmuarekin 25 urte honetan egindako biharra ez da makala gero. Ixa-ixa lagunartian sortutako amets modura jaixozan hura gaur egunian Eibarren eta eibartarren artian bere tokixa eukitzera ailegau da eta, galdetzen hasiz gero, geurian gitxi izango dira ...eta kitto! esan eta ezagutzen ez dabenak. Baiña honetara ailegatzeko gogotik jardun dau biharrian alkartiak, sortu zan eguna baiño lehenagotik hasi eta gaur arte.

A skorako emoten dabe 25 urte eta denpora horretan ez dira gitxi ...eta kitto! Euskara Elkartea ezagutu dittuan kanbixuak, alkartiak izan dittuan "etxietatik" hasitta: Markeskua jauregixa, Armerixa Eskoliak lagatako lokala, alkartiak ondo kostata zabaldu eban Biltokixa, merkatu plaza zaharra... holan ibilli giñan, mueliak eta traste zahar guztiak hartuta bate-tik bestera, azkenian gaur egunian dakagun egoitzara ailegau arte. Sasoi batian ikastolaren haur eskolia izandakua ...eta kitto!-ren "etxia" bihurtu zala hamar urte baiño gehixago pasau dira. Hamarkadia bete aurretik be, segidan konturau giñan toki batian luzaruan egotiak zelako bentajak dittuan: alkartera jo nahi dabenak badaki Urkizuko dorrietan topauko dabela bulegua, beste iñork baldintzatzen ez daben ordutegixan atiak zabalik topauko dittuala... Alkartiaren eguneroko martxan uste baiño pisu haundixagoa dakala be ikusi dogu: lokala haundixa izatiak eta hainbat gelatan banatuta egotiak, hainbat hitzaldi, taillar... alkartiaren lokalian bertan garatzeko aukeria emon desku eta, horrerri esker, oin dala ur-

te batzuk baiño ekitaldi gehixago antolatzeko bidia zabaldu jaku. Horrekin batera, kalian egitten diran ekitaldixak be ugaritzen jua dira, herriko beste kolektibo batzuekin sortzen jua diran harremanak alkarlanerako aukera barrixak ekarri dittue eta instituziñuekin be lehen baiño harreman zuzenagua eukitziak mesede egin detsa alkartiari.

Edozelan be ...eta kitto! Euskara Elkartearen martxa baldintzatu daben faktorerik bada, diru-kontueri lotutakua izan da alkartiak gaiñian eruan bihar izan daben zamarik astutena. Lehelengotik proiekturako autofinanziaziañua ahalik eta haundixena izatia ahaleginduta be, alkartiaren jarduna nahitaez diru-laguntzeri lotuta jua bihar izan da beti. Krisixak dirala, politikuen planak dirala, sasoi hobiak edo illunaguak ezagutu dittu alkartiak. Baiña garairik okerrerenian be, proiektuak aurrera etartzeko gauza izan da alkartia, bazkide eta bihargiñak hori holan izateko egin daben ahalegin eta bihar haundixari esker. Gaur egunian martxan daguzenetako asko holako sasoi illunetan egindako ahalegiñaren emaitza dira.



Sorrerako helburu nagusiña euskera berreskuratzia izan zan, hain zuzen be euskera alkartia sortzeko proiektura gerturatu ziranak orduan sasoi batez be horren premiña eguala pentsatzen ebelako. Eibarko kalietan ez zan ixa euskera entzuten, euskaldunen artian be gaztelera jarduteko ohituria oso zabaldua zeguan eta, gaiñera, jendiak horren inguruko kontzientziarik be ez zekan. Duda barik, sasoi hartan kezka gehixen eragitten eban gaixa hizkuntzaren ezagutzarena zan. Izan be, jendiak euskera ikasi ezker erabilleria berez, modu naturalian etorriko zala ziñuan premisa ontzat emoten zan, horretan zalantzarik ez zeguan.

Baiña urtiak pasatzen jua ahala, denporiak argi erakutsi desku premisa hori okerra zala. Datuak oso garbi azaltzen dabe jendiak euskera ikasitta be gaztelera jotzen segitzen dabela. Bereziki larritzekua da gaztiak kontu honetan zelatan jokatzen daben, eskolan D erudian ikasi arren hortik kanpora gaztelera etenbarik jotzen dabelako. Zalantza barik, azken urtietan hori da euskariaren erabilleria areagotzeko biharrian dabizenak daken kezka nagusiña. Eta ez dira gitxi horri bueltia emoteko asmuarekin egindako ahalegiñak, Eibarren ez eze gure herritik kanpora be.

Hortaz, mende laurdenian kezka bat izatetik beste bat izatera pasau da eta ...eta kitto! Euskara Elkarte be errealdade horrekin batera moldatzen jua da, sasoi eta premiña barrixer ahalik eta onduen erantzuteko asmuarekin. Holan, euskariaren erabilleria areagotzera helburuari jarraituta bide barrixak zabalteko bihar haundixa egin dau alkartiak. Eta ahalegin horretatik sortu dira urtetik urtera gero eta indar haundixagua hartzen diharduen mintzapraktikarako programak: Berbetan izenarekin jaixo zana hedatzen jua ahala merkatarixeri, tabernarixeri, gurasueri... bereziki zuzendutako azpitalde modukuak sortzen jua eragin dau. Eratu diran talde barrixenak, barriz, arreta berezixa ipiñi detse herrira aillegau barri diraneri eta, horrek euskera erakartzeko formula erakargarrixak sortzeko ahalegiñari zor detsagu ikasturte honetan martxan ipiñi diran Ongietorri Berbetan eta Txalan-Txalan moduko programak.

Etorkizunian be, alkartiak bide horretan segiduko dabela argi dake bihariñak, *"oin arte egindakua bidetik, aurrerantxian be gizartian somatzen ditugun premiñeri erantzunik egokixena emoteko biharrian jarraitzeko asmu dakagu, horretan ahaleginduko gara behintzat"*.



## Koldoren arrastua

Aldizkarixan bost urtian kazetaritza ikasle modura kolaboratzen jardun eta gero, 1998xan biharrian hasi zan, eta hortik aurrera, 2014an laga gintuan arte, bera izan zan ...eta kitto!ko koordinatzaillia, euskara alkartiaren eta aldizkarixaren arteko zubi sendua. Kolaboratzaillie moduan egittia tokau jakon lehelengo betebiharra, elkarte gastronomikuen gaiñeko artikuluak izan ziran. Eibarko soziedade guztiak bisitatu zittuan, grabadoria eta argazki kamaria soiñian hartuta. Koldok egin zeban bihar guzti horrek, Elkarte Gastronomikuen liburuan ikusi zeban argixa.

Euskeraren transmisioñuan inguruan be bazekan kezka, eta ardura horrek bultzatuta, Txikitto! umeentzako hillabetekarixa jarri zeban martxan 1996. urtian.

Teknologixa barrixak be beti zittuan buruan bueltaka. Aldizkarixa interneten egon bihar zala argi euki zeban hasiera hasieratik, eta gogotik egin zeban lan hori lortu ahal izateko.

Debararrenan eskualdeko proiektu komunikatibo bat sortzeko ahalegiñan be burubelarri jardun zeban. Nahiz eta azkenian ez zan aurrera atara, asmo eta gogo guztia jarri zittuan holako proiektu bat egiñ ala ez aztertzeko egin ziran billera guztietan, eta Herkimen euskal hedabideen elkartean be Koldo izan da ...eta kitto!ren ordekarixa.

Alkarteko ordekarixa izan zan hainbat erakundetan, batez be Euskaltzaleen Topagunian, eta bi urte inguru bertoko zuzendaritza batzordeko kide izan zan.

Bapatian jua jakun, lanaren erdixan, guztion bihotzak apurtuta. Agintzia gustatzen ez jakon gidari bihurtu zan, kanpora begirako gure aurpegixa. Euskaltzalia, euskarendako bizi zana, euskera denondako zala uste eban eta alkartetik egitten zan guztia euskariaren alde egin bihar genduala aldarrikatzen eban. Konpromiso sakonekia izanda, argi erakutsi zeskun euskalgintzaka ez dala biharra, bizitzeko modu bat baiño. Alkartek antolatutako edozein ekintza, edozein ekimen, edozein inizatiba, begittu batian topauko dogu beti Koldoren arrastua, Koldoren biharra.



Eskerrik asko 25 urtez bidelagun izan zareten guztioi.



**IGONE LAMARAIN****elkarteko presidentea (2011-2014)**

**- Zenbat denbora egon zinen presidente ...eta kitto!n?**

Aurretik zuzendaritzan egon ondoren, 2011an Juan Barahonari erreleboa hartu nion eta 2014ra arte egon nintzen.

**- Zelan gogoratzen duzu sasoi hura?**



Berba asko egiten genuen diruaren gainean. Krisiaren aitzakiarekin erakundeek dirulaguntzak asko murriztu zituen, eta ikusi genuen ...eta kitto!ren laguntzak bereziki jaitsi zirela. Beraz, momentu oso kritikoa izan zen ...eta kitto!rentzat. Horregatik, orain, beste perspektiba batetik ikusita, konturatzen naiz berba larregi egiten genuela diruaren gainean eta gutxiegi Eibarren euskaraz bizitzeko egin behar den bideari buruz. Baina uste dut hurrengo zuzendaritzak oso ondo eman diola buelta eta primeran jardun duela. Bilera mordoa egin genituen Jaurilaritza, Foru Aldundia eta Udalarekin dirulaguntzen kontuagatik, diru-iturri berriei ere buelta asko eman genien. Langileek lan zama gehiago hartu zuten, eta azpimarratzekoa da, zentzu horretan, euren konpromisoa. Argi daukat elkarteak aurrera egin badu, hori langileei esker izan dela. Nik laga nuen urtean Koldo Mitxelena hil egin zen, eta oso gogorra izan zen, ikuspegi pertsonaletik, eta baita elkartearen ikuspegiatik ere. Bere ibilbidea elkartearen, egin zuen lana ezin da goraiatu gabe utzi.

Bestalde, garai hartan Topagunearen barruan hausnarketa egiteko sasoiabaldia zen, eta gai hori ere asko landu zen. Gauza batzuetan ez gendoen bat, gure zalantzak genituen eta harremana delikatu zen. Hala ere, uste dut ...eta kitto!k heldutasun handia erakutsi zuela. Kritikoak izan ginen baina jarraitu genuen barruan, pentsatzen dugulako euskaltzaleen Topagunea inportantea dela euskara elkarteentzat eta euskararen normalizaziorako.

**- Beraz, ez ziran garai errezak izan.**

Ez, baina, hala ere, lehen esan dudana borondate horri esker proiektuek aurrera jarraitu zuten, eta, herrian egin beharreko lanean zentratzea erabaki genuen. Eibarren euskaraz bizitzeko gazteak oso inportanteak direla ikusita, gazteak eta euskararen erabilerari buruzko ikerketa sakon bat egin zen.

**- Gaur egun nola ikusten duzu elkarteak?**

Aurrerapausu handia eman du ...eta kitto!k azken urteetan batez ere Berbetan egitasmoarekin (dendariak eta tabernariak Berbetan, Ongietorri Berbetan, mintzapraktika taldeak...), eta uste dut badagoela egiten den lanaren errekonozimendu bat, Udalaren aldetik ere. ...eta kitto!k ez balu egingo ez luke inork egingo eta horregatik baliabideak eman behar zaizkio elkarteari. Hor aldaketa handia somatu dut eta uste dut ...eta kitto! gehiago dagoela orain kalean horri esker. Jende askok hartzen du parte egitasmo horietan, euskara ardatz izanda, eta hori oso inportantea da. Euskararen Plan Estrategikoan ere elkarteak parte garrantzitsua izan behar dela uste dut.

**...eta kitto! Elkarteko presidentek 25 urte hauetan:**

- Juan Jose Araolaza (1992)
- Elena Laka (1993-1997)
- Moises Gonzalez (1998)
- Iñaki Alberdi (1999-2004)
- Juan Domingo Barahona (2005-2010)
- Igone Lamarain (2011-2013)
- Juan Domingo Barahona (2014)
- Ainara Argoitia (2015-2016)
- Ekaitz Olaizola (2017)



2004an inauguratutako Urkizuko lokaletan gaude. ...eta kitto!-k mende laurdenean izan duen laugarren egoitza da, Markeskuatik, Armeria Eskola pareko EPA-tik eta Merkatu Plazatik pasa eta gero.

**Urkizu, 11-n gaituzue****EKAITZ OLAIZOLA****elkarteko presidentea gaur egun**

**- Noiztik zara ...eta kitto!ko bazkide eta zerk bultzatu zintuen horretara?**

Orain dela 4 urte inguru egin nintzen bazkide eta zuzendaritzan sartu nintzen, euskarari laguntzeko modu erreza iruditu zitzaidalako. Hala ere, lehendik ere baneukan elkartearekin harremana, esate baterako, sagardo egunean aspaldi hartzen dut parte, sagardoa banatzen.

**- Lehen zelan ikusten zenuen elkarteak eta zelan ikusten duzu gaur egun?**

Lehen, aldizkariaren ikuspegiatik ezagutzen nuen gehienbat. Orain, zuzendaritzan nagoenetik, elkarteak bultzatzen dituen egitasmoak eta ekitaldiak ondo ezagutzeko aukera izan dut, eta lan mordoa egiten dela esan beharra dago. Barrutik gauzak beste modu batean ikusten dira, eta, zentzu horretan, aldaketa handia izan da elkarteak ikusteko eran.

**- Zelan ikusten duzu elkarteak herrian?**

...eta kitto! erreferente bat da euskara mailan. Nik beti ikusi dut horrela. Jendeak begi onez ikusten du, eta borondate onez jarduten du lanean laguntza eskatzen zaionean.

**- Zelako elkarteak eta herria irudikatzen duzu 10 urte barru?**

Proiektu potenteak egiten ari dira eta ilusioz eta itxaropen handiarekin ikusten dut etorkizuna. Lan asko egin behar da, hori argi dago. Euskararekin ezin gara inoiz erlaxatu.





Guinness errekorra egiteko erronkari heldu diogu eibartarrok, baina aurtengo San Juan jaiak hasteko asmoarekin egingo den horren atzetik hilabeteotako lana dago eta hori koordinatzen ibili da Publizitate eta HPPetan lizentziatua eta EHUKo publizitate-irakaslea den Estitxu Garai. Lan hori nolakoa izan den jakiteko asmoarekin jo dugu berarengana.

## ESTITXU GARAI:

# “Eibarren euskarari bultzada ematea da Guinness errekorrekin aurkeztuko den egitasmoaren muina”

**- Ekainaren 22an egingo den ekitaldia egitasmo zabalago bat plazaratzeko erabiliko da. Zein da bada egitasmo hori?**

Bai, euskarari bultzada berri bat eman nahi zaio Eibarren, hori da egitasmoaren muina. Datozen urteetan haur eta gazte munduan jarri nahi da indarra, eta lanketa hori modu ezberdinean egin nahi da, estilo ezberdin batekin eta pertsona berriak aktibatuta. Ekainaren 22ko ekitaldia eta Guinnessarena jende asko batzeko bitarteko komunikatiboa da, bertan proiektua aurkeztu eta mezua plazaratzeko.

**- Hau guztia prestatzeko prozesua nolakoa izan da? Zelakoa izan da azken hila-beteotan egin den lana?**

Nirekin harremanetan jarri zirenean lan handia zegoen eginda. Eibarko euskararen plan estrategikoan diagnostikoa eta hurrengo urteetarako helburuak zehaztuta zeuden eta hori zen abiapuntua. Hala ere, hasieratik erakarri ninduen lantaldearen proposamenak: betikoa eginez gero emaitza zein den badakigu, zerbait berria nahi dugu, komunikazioa ardatz hartuta. Orduan hasi ginen asteroko dinamikan gaia lantzen. Lehenengo pausoa gaur egungo egoera zein den aztertzea izan zen eta gure komunikazio- helburuak finkatzea: zer lortu nahi dugun eta horretarako nori hitz egin behar diogun, zein estilotan eta zein mezurekin. Hori lantzeko asteroko dinamika batean sartu ginen, oso bizia eta intentsitate handikoa izan da. Proiektuaren filosofiarri eutsita, jada proiektua eibartarren eskuetan dago; epe motzera lehenengo egitekoa jende berria inplikatzeko zen, eta orain arteko emaitza oso ona izan da.

**- Zuk zertan jardun duzu? Zein izan da zure ardura guzti honetan?**

Aipatu dudanaren harira, marketinaren ikuspuntu estrategikoa txertatzea eta marka lanketan laguntzea, hori bideratzea; eta oro har komunikazioa planifikatzen lagun-



tzea. Lehenengo pausoa gaur egungo egoera zein den aztertzea izan zen: nola ikusten dute eibartarrek euskararen aldeko mugimendua gaur egun? Hor barruan egon daitezkeen pertzepzio guztiak atera genituen, diskurtso autokonplazientean erori gabe. Eutsi beharreko elementu positibo asko agertzen zitzaizkigun, baina baita landu eta irauli beharreko alorrak ere. Esaterako euskalgintza eremu serio eta aspergarri moduan ikustea, jende superjantzi eta adituak osatutakoa, talde itxia eta dibertsitate gutxikoa, serioa, aspergarria... Plan estrategikoan ere agertzen zen barne mailan euskaltzaleak desanimatuta, ilusiorik gabe eta aurrera begirako erronka berrien premien zeudela. Horrekin apurtzea zen lana, eta ekimenari izaera apurtzailea, informala, herritarra, anitza, irekia, parte-hartzailea, positiboa, irabazlea ematea. Izenak berak hori guzti hori perfektuki adierazten du: AKEBAI. Apurtzailea zalantzarik gabe, inork ez duelako espero euskalgintzatik izen hori erabiltzea, gu izan garela eta izango garela “baietz” esan behar dela gogoratzen eta matraka ematen jarraituko dugunak; horregatik, hain zuzen, adierazten du ekimen ireki eta integratzailea dela, eta euskararen aldeko lan horre-

tan guztiak behar ditugula. Beste elementu guztiak ere bazituen: informala, gazte hizkera, erronka, positibotasuna eta abar. Kaleko esapide okerrak marka moduan erabiltzea ez da kontu berria, nazio artean oso hedatuta dagoen kontua da. Hala ere, marka izenera mugatzen dela pentsatzen duena oso oker dabil, markagintza orain hasten da, izen horri ekimenak izan behar dituen ezaugarri guztiak eransten jarraitzean, eta hori ekainaren 22ra begirako mezuetan agerikoa izan behar da.

**- Ibil zara beste inoiz horrelako egitasmoen batean lanean?**

Bai, azken boladan euskararen markari lotuta zenbait proiektutan murgilduta nabil, bai unibertsitatean eta baita herrigintzako eragileekin ere. Euskalgintzan etengabe aipatzen da paradigma aldaketa baten aurrean gaudela eta diskurtso berriak behar dituela euskarak. Egoera Euskal Herri osoa ere bada, eta Eibarren eman nahi den irtenbidea, gutxi asko, beste hainbat tokitan landu nahi den ikuspegia da, ilusioa, emozioa eta integrazioaren bidetik.

**- Maila pertsonal zein profesionalean nola baloratzen duzu horrelako zerbaiten parte izateko aukera? Zeintzuk izan dira proiektu honetan topatu dituzun berezitasunak?**

Nazio mailakoez gain, herri mailan ere izan dut proiektu txikietan parte hartzeko aukera, baina honek beste dimentsio bat du. Egia esan zaila da benetan ikuspuntu komunikatiboa hasieratik hain presente eta hain barneratua duen lantalde batekin topo egitea, eta kasu honetan nire lana oso erreza izan da. Orain arteko bidez oso harro nago, eta plazer hutsa izan da horrelako pertsona inplikatu, positibo eta batez ere ausartekin topatzea. Egia esan, taldeak berak ilusio hori transmititu dit eta ni ere oso pozik nago horren parte izan naizelako.



## Bolari Egunean Jesus Mari Diez eta Bittor Rodriguez omenduko dituzte

Asola Berri hiru-txirlo taldeko kideek ondo merezitako omenaldia jasoko dute bihar Eibarren amaituko den Gipuzkoako 48. hiru-txirlo bola txapelketaren azken jardunaldiaren harian. Aurten Asola Berri hartuko duen azken tiraldi hori, ohikoa denez, eguerdiko 12:00-etan jokatu da (txapelketako aurreko jardunaldi guztiak 17:00etan izan dira) eta, behin tiraldia amaituta, parrekoak erabakiko dira -hau da, sailkapenean izan daitezkeen berdinketa

guztiak-. Sailkapen guztiak argituta, 14:30ean bazkaria egingo dute Azitain jatetxean eta, amaieran, oroigarriak emango zaizkie Asola Berriko omenduei eta Gipuzkoako txapelketako maila guztietako txapeldunei sariak banatuko dizkiete. Jai-giroa Ander Ariznabarreta "Arri-txaren" musikak alaituko du.

Aurreko zapatuan Azkoitian jokaturako jardunaldian, Floreagako Santos Muñoz erraz nagusitu zen, 9 txirlorekin, eta Amaia Korta izan zen bigarren, 5ekin.



Sailkapen orokorrean, bestalde, Jose Muñozek ondo bideratuta du txapela eskuratzea, 40 txirlorekin, eta San Migueleko Xabier Loiola bigarren da, Floreagakoarengandik hiru txirrola. Asola Berriko ordezkariak zabala aurki dezakegu sailkapeneko hurrengo postuetan; Sergio Rodrigue-

zek (36 txirlo) eta Bittor Astigarragak (35) bigarren postua behintzat gertu daukate, eta euren atzetik daude Unai Loiola eta Mikel Urkia (32), Bittor eta Oier Ugarteburu (31) eta Ibai Diez eta Ganix Rodriguez (30), guztiak ere eibartarrak Unai Loiola Elgoibarkoa kenduta.

## Field Target erakustaldia egingo dute bihar Legarreko frontoian



Armagin Elkartearen 50. urteurrenaren harira, **ekainean eta uztailan** egingo diren hainbat ekitaldi prestatu dituzte bertako arduradunek. "Herrikutsua" izango duten horietako lehen bihar egingo da Legarreko frontoian, 10:00etan hasi eta 14:00ak arte. Euskadiko Field Target Elkartek antolatuta, "oso modan dagoen" aire kon-

primatuko karabinekin egiten den tiro modalitatea praktikatzeko aukera izango da, "haur zein heldu izan, beti ere monitorea bat lagun dutela". Armagin Elkartearekin batera, Cometa Karabinak, Gamok eta Noricak babesten duten jardunaldian hainbat karabina "dagozkien bisoreekin" zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

## Hainbat jokalaria-ohi izan ziren Eibarko Errealzaleen bazkarian

Aurreko zapatuan Casino Artista Eibarres-en egindako bazkarian Eibarko Errealzaleak taldekoek 40tik gora lagun biltzea lortu zuten, tartean Alberto Albistegi, Igor Jauregi, Iker Sarriegi, Mitxel Loinaz, Iñigo Elozegi eta German Zudaire Errealeko jokalaria-ohiak. Giro ezinhobean bizitako jardunaldian jokalariek Errealeko beterranoen taldeko kamiseta oparitu zizkieten Eibarko Errealzalekoei. Denboraldia amaituta eta horrelako bazkariarekin, peñakoak prest daude European izango diren urtea bizitzeko.



## Astebete aurreratu dute Camille bide zidorretik egiteko irteera

Klub Deportiboko Mendi Batzordeak urtero kaleratzen duen egutegian **ekainaren 17/18ko astebururako** iragarrita ba-

dago ere, Pirinioetara egin beharreko irteera astebete atzeratu dute eta hurrengo asteburuan, hilaren 10/11koan egingo du-

te. Camille izeneko bide hori izen bera zuten azken hartzairen bizilekutik igaroko da. Zapatuan Aragoiko Lizaratik Pico Bernerara (2.432 m) joko dute eta, Estanesko aintziratik pasatuta, Sansanetera iritsiko dira. Domekan Astuneko eski pistetatik irteera Pico des Moinesera (2.347 m.) joko dute eta gero, goitik behera, Bearneko Ur-dos herriraino. Txangoa hilaren 10ean abiatuko da, goizeko 06:00etan autobus geltokitik. Izena emateko: 943-201904 telefono zenbakira deitu edo martitzen eta eguenetan (19:30-20:30).





## Euskadiko fitness txapela Eibarrera etorri da

Aitor Alfonso eibartarrak hamabost egun lehenago erabaki zuen Euskadiko txapelketan parte hartzea eta, berebiziko prestaketa egin ondoren, txapela jantzi zuen aurreko zapatuan Gernikan jokaturako lehiaketan. Aitorrek fitness txapela jaztearekin batera, be-

rak prestatutako Miguel Egidok body linekoa jantzi zuen eta taldeko Jon Aranburu eta Beñat Segade 4. eta 6. izan ziren, hurrenez hurren, azken modalitate horretan. *“Ez nuen lehiatzeko inolako asmorik, baina Bizkaiko txapelketa ikusi nuenean orduan animatu nintzen eta bota nion erronka hori nire buruari”*, dio Alfonsok. Horrek ahalegin berezia eskatu zion eibartarrari, taldekideek urte osoan prestatutakoa berak hiru hilabete egin behar izan duelako. Harro dago AAT-koek txapelketan egin duten lanarekin, *“bakoitza euren gimnasioetan prestatzen badira ere, gure arteko harremanak psikologikoki asko laguntzen digulako; txapelketa aurretik, esaterako, pisu bat konpartitu genuen”*. 2013an



Beñat Segade, Miguel Egido, Aitor Alfonso eta Jon Aranburu.



Alfonso eta Egido, fitness eta body line txapelkunak Ivan Sanchis osteopatarekin.

Euskadiko azpitxapelkun izan zen, orduko hartan Iñaki Mateos eibartarraren gidaritzapean, eta lau urte geroago animatu da berriro parte hartzera: *“Ez da komenigarria urtero lehiatzea, hobe da erronkak epe luzeagora ipintzea. Horrelako lehiaketak ahalegin handia eskatzen du”*. Beste kirolari batzuen prestatetan dago sartuta buru-belarri: *“Datorren urtean aurtan parte hartu ez duten beste batzuekin izango gara txapelketan, aurtengok izan-*

*go dute euren aukera hementik bi-hiru urtera, lehiaketak baztertuta egoera fisikoa hobetzea errazagoa delako”*. Prestatzailea izateaz gain, epaile ere jardun izan du 23 urteko Alfonsok. Fitness-ean parte hartu badu ere, *“25 urtera artekoek body line modalitatean dihardute, gero fitnessera pasatzeko”*. Prestatzaile gabe, ez du erraza izan bere burua prestatzea, baina ondo asmatu du. Ikasten jarraitzea du helburu eta *“gure taldea garatzea”*.

## Herriko igerilariak Eskola Jokoetan

Gasteizko Mendizorrotzako igerilekuan jokaturako Euskadiko Eskola Jokoetan Urbateko alebin mailako sei igerilari izan ziren Gipuzkoako se-



lektzioa ordezkatzeko eta guztiak marka egin zuten, azken ikasturtean izandako bilakaera nabarmen lagata. Progresio horren barruan, azpimarratzekoak dira Paula Gabilondoren garaipena 100 metro estilotan eta 3. postua 200ekoan, eta baita Kai Zubiaurrek lortutako 5. postua bular proban eta 6.a 200 estiloan.



## Vitoria Eibar KEko filialak Cirbonero hartuko du bihar

2. B. mailara igotzeko promozioaren lehen kanporaketan Azuara kanporatu ondoren, CD Vitoriak Zintzonikoko Cirbonero taldea izango du aurkari oraingoan. Lehen partidua bihar jokatu da Ipuruan, arratsaldeko 18:00etan. Talde nafarra Osasunaren filiala da eta hirugarren sailkatu zen bere multzoan; lehen kanporaketan Guadalajara laga zuen bidean.



## ANDONI MUJIKA LETURIONDO

2017ko maiatzaren 14an hil zen, 81 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





## Ez Dok-eko neskentzat izan zen Unbeko Rugby 7-ko torneooa

Unbek aurreko domekan hartutako errugbi-7ko torneoan lau talde izan ziren, hasteko guztiak guztien aurka jokatze eta gero horko emaitzen arabera finalarekin amaitzeko. Erasoan zein defentsan bikain jardun zuten Eibarko neskek eta Gernikari, La Riojari eta Bera Berari irabazi zieten, azken horri baita finalean ere. Asteburu honetan Arrasaten izango dute hitzordua eta, iaz egin zuten bezala, oraingoan ere torneooko garaile bueltatzea espero dute.

Maiatzaren hasieran Kaiane Bedonesek, Idoia Jauregik, Nuria Magdalenak eta Amaur Mayok Euskadiko selekzioarekin



jokatu zuten Toledoko autonomien arteko torneoan eta, horrez gain, Cristina Guntin Ez Dok taldearen entrenatzaileak ere Euskadiko selekzioa gidatu zuen errugbi-15 modalitatean.

Denboraldia agurtzeko sasoi betean sartuta, aurreko asteburuan senior mailako mutilen taldeak Zamora Rugby Club-ari irabazi zion Gaztela-Leongo hiriburuko horre-

tan. 18 eta 16 urtetik beherako neska-mutilek Santanderren izan zuten hitzordua, hango Independiente taldeak gonbidatuta: 18tik azpikoek galdu egin zuten eta 16tik azpikoek irabazi, eguna El Sardi-nero hondartzan amaitzeko. Azkenik, eskola mailakoek Kontxako lagunarteko txapelketan jokatu zuten, denetariko emaitzekin: galdu bezainbeste irabazi zuten.



## Uzta bikaina jaso zuten herriko atletek Euskadiko txapelketetan

Ikasturte osoan egindako lanak bere fruituak ematen dihardu azken hilabeteetan jokatutako txapelketen emaitzetan eta, horrela, Inma Urkiolaren aginduetara prestatu diren Klub Deportiboko atletak podiumetan hartu dute habia azken aldiotan. Aurreko asteburuetakoaren bidetik, oraingoan Durangon jokatutako Euskadiko jubenil eta junior mailako txapelketetan ezin hobeto jardun dute eibartarrek, batez ere juniorretan. Maila horretan hiru txapel etorri ziren Eibarrera: Julen Teran 1.500 metroan, Jone de Castro jabalina jaurtiketan eta Markel Gutierrez bost kilometroko martxako proban lehenak izan ziren. Teran, gainera, hirugarren izan zen 400 metro hesietakoan. Jubeniletan Andoni Galbano izan zen ordezkari onena eta, 200 metroan bigarrena izateaz gain, Espainiako txapelketarako gutxieneko marka eskuratuta.

Bestalde, Gasteizen jokatutako Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan Deportiboko atletak ez ziren atzean geratu eta, infantil mailan Mogel Ikastolako nesken taldeak txapela jazteaz gain, Garoa Magunazelaia jabalinarekin eta Maddi Tejada 500 metroan nagusi izan ziren.

## Dominen zaparrada Kalamuakoentzat Aretxabaletako judo torneoan

Berrehunetik gora neska-mutil izan ziren parte hartzen aurreko zapatuan Aretxabaletan jokatutako infantil mailako judo torneoan. Hainbat herritako judo klubak ordezkatzear gain, herri horretan ospatzen zen Txakoli Eguneko giroaz gozatzeko aukera izan zuten. Eibarko judoka gazteenek urrezko lau domina, zilarrezko bost eta brontzezko zortzi bereganatu zituzten. Eneko Corta, Zehao Ye, Koldo Estenaga eta June Valladares podiumeko gorenera igotzea lortu zuten borroka guztiak irabazita.



Judo harrobian txikitatik ikasten dute dominak desberdintzen.

## Ate irekiak barixakuero waterpoloan

Azken urteotan hainbeste garatutako Urdat waterpolo taldeak ate irekien jardunaldiak eskainiko ditu gaur hasi eta hiru barixakuetan. Ekainaren 2an, 9an eta 16an izango dira jardunaldi horiek eta 2006an, 2007an eta 2008an jaiotako neska-mutilentzat prestatu dira, kirol mota hori ezagutu eta bere ezaugarrien berri izateko. Ekitaldiek ordutegi berbera izango dute hiru egunetan: arratsaldeko 19:15etik 20:00etara.





## Kick-boxing eta boxeorekin esne-mamitan

Asier Indak zazpi urte daramatza kick-boxing eta boxeorekin bueltan, kirol horiek "bakoitzaren garapen pertsonalari eskaintzen dizkioten abantailak azaleraztzen". Uganen eta Ifar-Kalen jardun eta gero, gaur egun Armeria Eskolako frontoiaren azpiko gimnasioan ematen ditu klaseak azarotik hona. Berak sortutako "Tierra Soleda" klubak 32 bazkide ditu gaur egun eta "une honetan ia ezin dut jende gehiago hartu, baina 35 lagun ditut klaseak hartzen, tartean zortzi emakume, eurretako bat gainera 56 urtekoa". Asteleheneetik eguenera hobetzen dituzte euren abileziak, "19:00etatik 20:30rako klaseetan". Inda Team deitzen da berak sortutako taldea eta, Sanjuanetan Astelena frontoian antolatzen duten jaialdian, aurten "Mikel Cid eta Ander Prellezo aurkeztuko ditugu, boxeoa modalitatean, biak ere aurretik borroka bat edo beste egindakoak". Iruñean ateratako gerriko beltzaren jabe dugu Inda, bere kirola "ezin zintzoago" dela sinestuta: "Kirol osoa da, exigentea eta beste askoren osagarria aldi berean. Er-



Asier Inda eta bere "eskuadrakoak" ikasitakoa erakusteko gogoz.

tzainak, masajistak, aholkulariak... denetarik ditugu taldean, urteetan gurekin dihardutenak". Koordinazioa, elastikotasuna, indarra, erresistentzia... hainbat ezaugarri lantzen direla ziurtatzen digu eta baita "norbanakook daramagun bizitzaren termometro ezinhobeia ere" izan daitekeela. Hori errespetu baloreak ahaztu barik: "Ring-etik kanpo debekatuta dugu borrokatzea, eta halakoetan sartzen denak badaki hurrengo egunean hemendik kalera doala".

Badira bi urte eta erdi Gipuzkoako txapelduna izan zela amateur mailako pisu astunetan, eta orain entrenatzaile titulua ate-

ra nahi du Asierrek, bere gerriko beltza baliokidetzuz. Klaseak hartzen dituzten eibartarrekin batera, "Ondarroako, Azpeitiko, Donostiako, Debako bost lagun... zintzo-zintzo etortzen dira praktikak egitera". Arduratuta dago berak ezin duelako jende gehiagorik hartu, "baina Eibarren gimnasio bat baino gehiago dago eta merezi du. Probatzearekin ez da ezer galtzen eta modalitateen artean badago aukeratzetik". Armeria Eskolako gimnasioaz ez du kexarik, baina ring-a nahi du bertan: "Gustatuko litzaidake bat ipintzea, kirolaz zuzenago gozatzeko; aberasgarria izango litzateke denontzat; batez ere, gazteentzat".

## Eibarko Hiriaren 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoaren txostena aurkeztu dute

Aipatutako dokumentuak sei eremu nagusi batzen ditu: erakundeak, elkarteak, eta kirol, gizarte eta kultur eragile edo agenteak elkartzen ditu, besteak beste. Behin-behineko dokumentua da eta ekainaren 24ra arte egin ditzakete ekarpenak herritarrek [pe2017-2027@sportstudio.es](mailto:pe2017-2027@sportstudio.es) helbidera mezu bat bidalita. Behin betiko dokumentua prest egon behar da uztaila amaieran.

"Eibarko Hiriaren 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa" behin-behineko txostena Portalean aurkeztu zen aurreko astean. Sport S.L. Studio enpresak idatzi du aipatutako plana, otsailetik hona M<sup>o</sup> Jesús Monteagudo, Luis Solar, Iñaki Ugarteburu, Patxi Pescador, Boni Teruelo, Julián Gomez, Xabier Leizea, Fernando Andres, M<sup>o</sup> Luisa Garcia, Luis Natividad,

Marian Izpizua, Maider Blasco eta Fernando Parisek osatutako lantaldearekin. Planaren egiteko nagusia "eibartarrak motibatzea da bizimodu aktiboa eta osasuntsua izan dezaten".

Proposatutako ardatz edo atal bakoitzean diagnosi bat eta datozen urteotan hobetzeko proposamenak eta ekintzak bildu dira.





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16



**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L





## JESUS Mª OLMEDO "KATA" (Amañako danborrada)

– 25. danborrada egingo duzue aurten Amañan. Nola sortu zen lehen aldiz egiteko asmoa?

1992an, urtarrilean egin ohi zen danborradaren entsegu batetik gendozen Javier Zorrakin, Jose Luis Perez Sarasketa eta hirurok, eta Trinkete parean geundenean Josean Alberdi 'Goma'rekin topo egin eta zera bota zigun: "Amañan ezin dugu danborrada egin?". Ni Amañakoa nintenez, merituei begiratu gabe, danborrada antolatzeke enkargua egin zidaten. Beraz, Amañako umeek Sanjuanetako danborrada txikian parte hartzen zuten, eurekin Amañakoa prestatzen hasi ginen eta 1992an lehen aldiz irten ziren kalera auzoan. Urtebete geroago, nagusia prestatu genuen. Sanjuanetako danborradak gauza guztiak laga zizkigun,

## "Oraindik ere urduri jartzen gara danborradan irtetzen garenean"

Aurten Amañako 25. danborrada egingo da auzoko jaietan eta lehenengo urte hartan parte hartu zutenei oraingoan ere aritzeko gonbidapena egin nahi die antolatzaileek. Maiatzaren 18an hasi zituzten entseguak.

Eguenetan Amañako eskolan batzen dira txikiak (19:00etan) eta nagusiak (20:00etan), danbor doinuak findu eta auzoko kaleetan ikuskizun ederra eskaintzeko. Gainera, Amañako jaietako txupinazoa eurek emango dute.

eta Juan Mari Pastor, Zorrakin, eta Jose Luis eta bere emazteak asko lagundu zituzten. Lehen aldia izanagatik urduri geunden, baina primeran irten zen. Oraindik ere urduri jartzen gara danborradan irteten garen bakoitzean!

– Zenbat lagunek hartu zenuten parte lehen aldian?

Bi konpainiek hartu genuen parte eta laurogei bat lagun batu ginen. Gaur egun ere antzeko kopuruan gabiltza.

– Amañako danborradak aldaketak izan ditu 25 urte hauetan?

Asko ez. Hamabi piezarekin hasi ginen (Sanjuanetakoan hamazortitik gora izaten dira) eta orain hamasei jotzen ditugu.

– Nortzuk hartzen duzue parte danborradan?

Danbolin eta upel konpainia bana dau-

kagu. Gastadoreak falta zaizkigu eta hemendik gastadoreei deitzen diegu etortzeko. Asko apaintzen dute danborrada.

– Urtero izan zara Amañako danborradaren arduraduna?

Bai. laz bihotz ebakuntza egin eta mar txoan eman zidaten alta; beraz, albo batera geratu nintzen entseguetan eta zuzendaritza kontu handiz eraman nuen, baina aurten guztiz indarberrituta eta gogotsu nago.

– Zerbait berezia prestatu duzue 25. edizioa ospatzeko?

Lehen danborradatik ez du jende askok jarraitzen, beraz, aurreneko aldian ibili zirenei berriro deitzen diegu edizio berezi honetan ere danborradan irteteko edo, gutxienez, txupinazioan edota festan parte hartzeko.

## Kaleetan Kantuz taldearen jaiak bihar

Kaleetan Kantuz taldekoek bihar agurtuko dute ikasturtea eta, horretarako, egun osoz jaialdia antolatu dute. Egunari Untzagan ekingo diote, 11:00etan partehartzaile guztiei harrera eginda. Eguerdian alkatea batuko zaie, agurra egiteko eta, ondoren, Untzagatik kalejira abiatuko dira, kalerik kale kantuan ibiltzeko (Calbeton, merkatu plaza, Ibarkurutze, San Agustin, Toribio Etxebarria eta Ego-Gainen ibiliko dira). Kalejira amaituta, Untzaga Plaza hotelean bazkalduko dute eta jaiak 18:00ak aldera agurtuko dute.



## Liburutegi zerbitzua Andretxean

Andretxean dagoen liburutegia berriztu dute eta, eskaintzen dituzten lanen artean sexualitatea, hezkidetzak, feminismoa, indarkeria matxista, literatura, maitasun erromantikoa, historia eta osasuna bezalako gaiak buruzko hainbat liburu daudela jakinarazi dute arduradunek. Han dauden liburuak kontsultarako zein maileguan hartzeko dira eta, laguntzarik behar izanez gero, hango arduraduneri eskatuz gero gustora emango dutela eman dute aditzera. Zerbitzua herritar guztiek erabil dezakete eta liburuak Andretxeko ohiko ordutegiaren barruan mailegatuko dira.



## Berbalagunak omenduko dituzte bihar Derion

Derio Euskal Herriko mintzalagun, mintzakide zein berbalagunen topagunea izango da bihar, aurten han ospatuko den Mintza Egunari esker. Antolatzaileek lagunartean euskaraz berba egin eta ondo pasatzeko sekulako plana ari dira prestatzen: hamaiketako, triki-dantza poteoa, bisita gidatua, kalejira, bazkaria... Aurtengo berrikuntza, bestalde, bazkalostean kantuan egiteko gonbidapena izango da. Ohikoa den moduan hainbati omenaldi egiteko aprobetxatuko dute eta omenduko dituztenen artean Berbetan programako eibartarrak egongo dira.






## Zine forum saioa gaur arratsaldean

Pagatxa emakume elkarteak antolatuta, zine forum saioa egingo da gaur arratsaldean, 19:00etan Portalean (areto nagusian). Oraingoan emango duten filma Abdellatif Kechiche zuzendariaren "La Vida de Adele" izango da. Filmak neska biren arteko maitasun istorioa kontatzen du eta, betiko moduan, pelikularen proiektzioa amaitu eta gero horri buruzko solasaldia egingo da, Izaskun Rodriguez Elkororen gidaritzapean. Sarrera librea izango da.

## Erakusketa zabaldu dute Zeramika eta Dibujo eskoletakoek Portalean



Atzoz gerotzik Zeramika eta Dibujo udal eskoletako ikasleen ikasturte amaierako erakusketa ikus daiteke Portalean, erakusketa aretoan. Ekainaren 16ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18:30etik 20:30era. Bestalde, eskola bietarako matrikulazioa zabalik dago (irailaren 7ra arte). 2017-2018 ikasturterako matrikula egiteko zein informazio gehiago eskatzeko Pegorara joan daiteke edo, bestela, 943708435 telefono zenbakira deitu.

## "Festa dezagun gaurdanik geroa"

Bilgune Feministak eta Emaginek elkarlanean egindako "Festa dezagun gaurdanik geroa" dokumentalaren emanaldia antolatu du Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak ekainaren 15erako, 18:30ean Andretxean. Emagin elkarteak dinamizatuko duen emanaldian erakutsiko duten lanak "emakumeen parte hartzearen eta jai ereduaren inguruko gogoeta feministetatik abiatzen den Euskal Herriko jai ereduaren erakusleho txiki bat" izan nahi du. Jarduera irekia eta doakoa izango da.



## Napoka Iriak agur kontzertua emango du Coliseoan uztailaren 7an

Miren Narbaiza eibartarrak eta Ander Mujika elgoibartarrak osatzen duten Napoka Iria bikoteak azken kontzertua eskainiko du hemendik hilabete batera Coliseo antzokian. Azken aldian bakoitza bere aldetik hainbat proiektutan murgilduta ibili dira eta, bikotearen isalldiarekin amaitzeko, agur esateko kontzertua antolatu dute uztailaren 7rako. Kontzertu berezia izango da eta euren ibilbide profesionalan lagun izan dituzten hainbat musikari eta lagunek ere hartuko dute parte.



## Euskaltegiatiko matrikulazioa zabalik

Uda euskera ikasteko aprobetxatu nahi dutenentzat eskaintza zabalik dago herriko euskaltegi bietan. Eibarko Udal Euskaltegian udako ikastarorako matrikulatzeko epea ekainaren 5etik 20ra arte egongo da zabalik. Klaseak, berriz, ekainaren 26tik uztailaren 21era bitartean izango dira (4 edo 5 ordu, goizez). Informazio gehiagorako Udal Euskaltegira joan edo 943 700912 telefonora deitu daiteke. Eta Eibarko AEK euskaltegiak ere hainbat aukera dauzka eskuragarri. Informazio gehiagorako euskaltegira joan edo 943 20 13 79 telefonora deitu.



## S. Vallejo Madrilgo Liburu Azokan

Juan Sanchez Vallejo Madrilgo Liburu Azokan egongo da domekan, "¿Locos molestos o imbéciles contentos?" bere libururik berrienaren aleak sinatzen. Horrez gain, Sánchez Dragó, F. Marías eta Molina Fox moduko idazleekin batera bere kolaborazioarekin argitaratutako "Giralunas y ficciones para Aute", Luis Eduardo Auteri eskainitako antologia ere sinatuko du.



## Ez Dok Fest

Taberna zabaldu zutela lau urte beteko direla ospatzeko egitarau berezia antolatu du Ez Dok-ek datorren astebururako. Barixaku arratsaldean hasi eta domeka eguerdira arte hainbat taldek kontzertua eskainiko dute Toribio Etxebarria kalean, nahi duten guztientzat musutruk.





ANE URKIOLA

## Istorioen usaina

Istorioz inguratuta bizi gara, istorioz beteta gaude eta beti gaitza istorio gosez.

Robert Mckee gidoiariaren aburuz: "Egun, gizarteak pelikula, nobela, antzezlan etab. ugari ikusten ditu, gizakion barne koherentzia falta eta kaos horrek sortzen dituen zalantzak kendu nahian. Entretenezko ere balio dute, noski".

"Storytelling" kontzeptu modernoa, istorioak ondo kontatzeko gaitasuna da, asko erabiltzen da marketing arloan. Baina gure arbasoak ere "storyteller" finak ziren, han ibiltzen baitziren suaren inguruan kontu-kontari gaueko mamuak uxatzen. Gure historian istorioak hainbat modu ezberdinetan igorri izan dira. Erromantzeak, koplak zaharrak eta bertsolaritza erabiliz (ahozko adierazpenean) telegrafoa, kartak, literatura (idatzizkoan), telefonoa, antzerkia, musika, zinema, telebista eta azkenik internet bidez.

Gizakiok istorioak maite ditugu, gertatzen diren abenturak eta anekdotak guregan eragiten dutelako, freskura dakartelako eta azken finean gainontzekoen ez-behar edota gertaerekin enpatizatzen dugulako.

Baina zein usain dute istorioek? Amamaren etxean topatu berri duzun liburu marroixka horrek? Edota ze usain egon daiteke antzoki txiki batean? Usainek eragiten digute istorioa bizitzeko eta interpretatzeko orduan?

Gogoan dut, txikitik, domekero bazkal ostean atxixak ipuinak kontatzen zizkigula. Berarekin esertzen ginen ohean, eta nahi beste istorio kontatzen zizkigun. Batsuetan, berak bizitako itsasoko abenturak ziren eta bestetan berak asmatutako 'Gallego Txixixe' pertsonaiaren pasadizoak. Askotan ezin izaten zituen istorioak amaitu barrez leherzten zelako bere istorio komiko haiekin.

Kuriosoa zen, egun batean Afrikan geunden, bestean piratekin itsasoan eta besteetan Ondarrrun bertan 'Gallego Txixixakin'. Baina usaina beti zen berbera: gure atxixarena.

Istorio batzuk ahaztu egiten zaizkigu, baina ez, ordea, euren esentzia, euren usaina.

## Udaleku irekiak antolatu dituzte abuzturako

Abuztuko lehen asteetarako udaleku irekiak antolatu ditu Udalak lehen aldiz. "Firin faran abuztuan" eta "Umiak firin faran abuztuan" udaleku irekietan parte-hartzeko, ezinbestekoa izango da ekainaren 5etik 11ra bitartean aurrematrikula egitea, eta horretarako aukera bakarra internet bidez, [www.astixa.eus](http://www.astixa.eus) webgunean egitea izango da. Aurrematrikula epe barruan eginda dutezentzat behin betiko matrikula betetzeko zein haur bakoitzaren programa jasotzeko epea, berriz, ekainaren 19tik 22ra bitartean egongo da zabalik. Matrikulazioa Indianokua gazteleguko bulegoan egin beharko da (09:30etik 13:30era eta 16:00etik 18:00etara) eta, horretara-



rako, umeen gurasoen edo tutoreen sinadura derrigorrezkoa izango da.

"Umiak firin faran abuztuan" programa 5 urteko haurrentzat antolatu dute eta umeak ez dituzte Eibartik aterako. Udalekua abuztuaren 1etik 11ra bitartean garatuko da, 10:00etatik 13:00ak arte eta prezioa 40 eurokoa da umeok. "Firin faran abuz-


tuan" programa, berriz, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko haurrentzat da eta hau ere abuztuaren 1etik 11ra bitartean garatuko dute. Prezioa 60 eurokoa da ume bakoitzeko (100 euro bi anai-arreba badira eta hiru izanez gero, berriz, 150 euro ordaindu beharko dituzte). Bestalde, ordaintzeko modurik ez dutenen kasuetan prezioa 20 eurokoa izango da, baina AGI edo RGI delakoa jasotzen dutela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar dute. Gurasoentzat bilera informatiboa uztailaren 18an egingo dute, udaletxeko pleno aretoan (18:00-etan "Umiak firin faran abuztuan" programakoentzat eta 19:00etan "Firin faran abuztuan" programakoentzat).

## Proiektzioa antolatu dute Artxiboen Egunerako



Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatuko du Udala Artxiboak datorren barixakuan, "Artxiboak, Hiritartasuna eta Kulturartekotasuna" goiburuarri jarraituta. Ekainaren 9an Artxiboen Nazioarteko Eguna izango da, UNESCOk 1948an Artxiboen Nazioarteko Kontseilua sortu zuela gogoratzeko eta Eibarko Udala Artxiboak ospakizun horrekin bat egin nahi izan du, Sergi Pitarch zuzendaria- ren "El último abrazo" izeneko film-dokumental laburraren proiektioa antolatuta. Aukeratu duten film laburrak saria jaso zuen 2015eko Goya sarietan eta egileek finantziazioa mikromenezasgoari esker lortu zuten. Dokumentala datorren barixakuan, 12:00etan emango dute, udaletxearen azken solairuan dagoen Artxiboan bertan. Leku mugatua izango denez, joan nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute. Erreserba telefonoz (943708422) edo e-mailez ([artxiboa@eibar.eus](mailto:artxiboa@eibar.eus)) egin daiteke.

## Zuazok "Mendebaleko euskera" kaleratu du




Koldo Zuazo gure herriko dialektologoak "Mendebaleko euskera" izeneko liburua plazaratu du eta bertan orain dela bost urte zabaldu zuen tesia zehaztuago eta garatuago gelditzen da. Eibartarrak orduan ezusteko handia eman zuen "Arabako euskera" liburua aurkeztean, adierazi baitzuten "Mendebaleko euskalkia, 'bizkaiera' deitu izan duguna, ez zela Bizkaian sortu, baizik eta Araban, eta zehazkiago esanda, Gasteizen". Azken bost urteotan inork ez dio Zuazori kontra egin; beraz, ematen du komunitate zientifikoak ontzar hartu duela Koldok ikertutako bidea.





### Udaberriko Bertso Saioa SORALUZEN

Soraluzeko bertso eskolak eta Euskal Jai Batzordeak antolatuta, gaur gauean, 22:15ean Udaberriko Bertso Saioa hartuko du herri horretako Antzokiak. Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio bertsoariak jardungo dute eta gai-jartzailea Maite Berriozabal izango da. Sarrerak 5 euro balio du.



### Hellgoibarko Metal Gaua ELGOIBARREN

Gaurko antolatu du Sinüosek Hellgoibarko Metal Gaua bosgarren urtez. Gaurko ekitaldirako talde bi gonbidatu dituzte, Quaoar (Bilbo) eta Adrift (Madril). Maialako parkean izango da kontzertua, 23:00etan hasita.



### Auramúsica taldearen folk ERMUAN

Gaztela-La Mantxako Zentruaren 25. urteurrenaren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Ermuko Gaztela-La Mantxako Kultur Zentruak. Besteak beste bihar gauean, 22:00etan Ermua antzokiak folk kontzertua hartuko du Auramúsica taldearen eskutik. Sarrera dohainik izango da.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- Juan Pedro Bollar Bilbao. 78 urte. 2017-V-25.
- Jose Ortiz de Lazkano Gomez. 82 urte. 2017-V-25.
- Esozi Alberdi Bernardo. 64 urte. 2017-V-27.
- Jose Ramiro Blanco Cid. 57 urte. 2017-V-27.
- Dolores Ibañez Lafuente. 98 urte. 2017-V-28.
- Vicente Fernandez Riesco. 85 urte. 2017-V-29.
- Luis Cid Peque. 91 urte. 2017-V-29.
- Luciano Ferreiro Dopozo. 82 urte. 2017-V-29.

## jaiotakoak

- Eder Peixoto Movilla. 2017-V-16.
- Uxue Arakistain Ormaetxea. 2017-V-18.
- Laia Lapeyra Mendoza. 2017-V-27.
- Alaia Varela Elkoro-iribe. 2017-V-30.

## farmaziak

- Barixakua 2  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 3  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Domeka 4  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Astelehena 5  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 6  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 7  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Eguena 8  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 9  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
**Mandiola** (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## SUDOKUA

AURREKOAREN  
 EMATZA

4	7	3	5	9	6	8	2	1
5	8	9	3	1	2	6	4	7
6	1	2	4	8	7	3	5	9
3	2	1	8	5	4	9	7	6
9	5	8	6	7	1	4	3	2
7	4	6	2	3	9	5	1	8
2	3	7	9	6	5	1	8	4
1	6	5	7	4	8	2	9	3
8	9	4	1	2	3	7	6	5

	4		9			1	5	
8		5			2			
		9	4					8
						5	3	9
5			7		4			6
9	1	6						
2					1	9		
			3			4		1
	9	1			5		2	



## Barixakua 2

### ZINE FORUMA

**19:00.** "La Vida de Adele", Pagatxak antolatuta. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalean (areto nagusian).

### DANTZA

**20:00.** Biraka Dantza taldearen eskutik, "Biraka disko" ikuskizuna. 3 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**00:00.** Kontzertua: The Vartools. Koskor tabernan.

## Zapatua 3

### 20. EIBARKO ITZULIA

**07:00.** 31,5 eta 18 kilometroko mendi ibilaldiak, aukeran, Deportiboko Mendi Batzordeak antolatuta. Deporren paretik abiatuta.

### TIRO NEUMATIKOA

**10:00/14:00.** Field Target erakustaldia, aire konprimatuko karabinekin. Legarreko frontoian

### KALEETAN KANTUZ

**11:00.** Ikasturte amaierako jaia. Untzagan.

### AZOKA

**11:00/14:30.** Kontsumo Arduratsuaren II. Azoka. Anbulatorio pareko parkean.

## Domeka 4

### TXORI KANTARIAK

**09:00/14:30.** Eibarko Hiria txori kantarien XVIII. Txapelketa, JJJ Memoriala. Arraten (eguraldi txarra izanez gero, Altzubarrenen, Azitaingo frontoian).

### FINALISTA EGUNA

**13:00.** Mendiko dominen banaketa, Klub Deportiboko Mendi Batzordekoen eskutik. Klub Deportiboan.

## Astlehena 5

### SENDABELARREN FOROA

**10:30.** Ikasturte amaierako txangoa. Irteera Ego-Gainetik.

## Martitzena 6

### DANTZA

**20:00.** Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

## Eguaztena 7

### IKASTEN

**08:15.** Ikasturte amaierako txangoa Plazaolara. Irteera ordua Urkizutik, Zubigain paretik (Ego-Gainetik 08:30ean).

### DANBORRADA ENTSEGUA

**19:00.** Danborradarako umeen entsegua.  
**20:00.** Helduen entsegua. B. Sarasketa kaleko 7an.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### DANTZA

**20:00.** Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

## Eguena 8

### KALEETAN KANTUZ

**17:45.** Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatutuek.  
**19:30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

### KALERATZEAK STOP

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

### DANBORRADA ENTSEGUA

**19:00.** Amañako danborradarako umeena.  
**20:00.** Helduen entsegua. Amañako ikastetxean.

### DANTZA

**20:00.** Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

## Erakusketak

### Ekainaren 16ra arte

– Zeramika eta Dibujo udal eskoletako ikasleen ikasturte amaierakoa. *Portalean.*

### Ekainaren 18ra arte

– Gervasio Sanchezen "Sarajevo, gerra eta bakea" argazkiak. *Udaletxeko patioan.*



*Eskerrik asko  
Orbea Haurreskolako  
Nagore eta Itzi  
hezitzaileei eskaini  
diguzuen guztiarengatik*

*BERTAKO UME ETA  
EUREN GURASOEN PARTEZ*




Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AMA, astelehenian 93 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat etxeko danon partez. Asko maite zaitzugu!



Zorionak, MARTXEL, bixar sei urte egingo dozuz-eta, mutil haundi. Dana jateko sasoi heldu da. Patxo potolo bat.



Zorionak, KEPA, astelehenian 9 urte bete dozuz-eta. Zein nagusixa! Segi holakua izaten. Etxeko guztion partez.




Zorionak, ANTON, gaur bi urte beteko dozuzelako. Patxo asko famelixa guztiaren eta, batez be, Sabinaren partez.



Zorionak, IZARO!!!, astelehenian sei urte egin zenduaz-eta!!! Lehengusiña hoberena zara! Famelixakuak eta, batez be, Lander.



Zorionak, IZARO, martitzenian 10 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren danon partetik.



Zorionak, UNAX, eguaztenian bost urte beteko dozuz-eta! Musu infinitua famelixaren partez.



Zorionak, INES, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Besarkada haunid bat etxekuen partez.




Zorionak, PABLO, gaur 12 urte egitten dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Beatrizen partez.




Zorionak, URKO, haraiñegun sei urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GAEL, gaur bi urtetxo egitten dozuzelako. Gu bezain zoriontsu izatia opa detsugu, sagutxu!!! Aitaxo eta amatxo.




Zorionak, MAITE!, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Juliaren partez!!!



Zorionak, JUNE!!!, atzo hiru urte bete zenduaz-eta. Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, MADDI (hillaren 7xan 13 urte egingo dozuz) eta ASIER (domekan zure eguna da). Bixon egunak domekan bertan ospatuko doguz. Famelixakuen partez.



Ongi etorri, OIHAN, maiatzaren 31n ezustian ailegau ziñan-eta. Zorionak aitaxo Igor eta amatxo Nekaneri, eta nola ez, amama MARISARI. Famelixaren partez.



## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

3an: 17:00, 19:45, 22:30

4an: 17:00, 20:00

5ean: 20:30

"Déjame salir"

Zuzendaria: Jordan Peele



(2 ARETOAN)

3an: 19:45 (Antzokia), 22:30

4an: 20:00

5ean: 20:30

"Piratas del Caribe"

Zuzendaria: Joachim Roenning



(ANTZOKIAN)

3an: 17:00<sup>(2)</sup>, 19:45<sup>(2)</sup>, 22:30

4an: 17:00<sup>(2)</sup>, 20:00

5ean: 20:30

"El caso Sloane"

Zuzendaria: John Madden



(ANTZOKIAN)

3an: 17:00 (gaztelera)

4an: 17:00 (euskeraz)

"Nur eta Herensugea..."

Zuzendaria: Juanba Berasategi





**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alogagai San Kristobal auzoan. 2 logela, egongela eta sukaldia. Dena jantzia. Egoera oso onean eta sartzeko moduan. Tel. 677-865362. Alex.
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 600-355206. Marialui.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 662-012834.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-778839.
- 2 logela (edo gehiagoko) pisua hartuko nuke alokairuan. Erdialde-Urkizu inguruan. Tel. 603-618793.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.
- 4 logelako etxea alogagai Aoizen (Nafarroan). Iruñea, Orreaga eta Iratitik gertu. Lo rategiarekin. Astebururako, aste osorako edo hilabeterako. Tel. 670-351672.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala salgai Birjiñape 1-ean. Bulegoa egiteko aproposa. 33 m<sup>2</sup>. Tel. 688-678934.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere), garbiketarak egiteko eta jatetxeetan lan egiteko. Tel. 671-763558.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Tel. 632-288967.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztaillean eta abuztuan umeak zaintzeko. Tel. 688-693801.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 631-144327. Maribel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 642-995089.
- Emakumea eskaintzen da dendari jarduteko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 622-213829.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-408371.
- 47 urteko emakumea eskaintzen da uztaillean umeak zaintzeko. Haur Hezkuntzan Goi Mailako teknikaria eta EGA tituluduna. Tel. 660-522271.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 608-886701.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 688-630587 eta 632-463048.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-963048.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 661-001246.
- Gizona eskaintzen da margolari jarduteko, mekaniko moduan eta komertzial lana egiteko. Tel. 643-072874.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 631-247899.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak edo etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-430951.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztaillean umeak zaintzeko. Tel. 620-619776.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 692-314985 eta 612-507299.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-378463.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 653-319561.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-983430.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-218828.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gaez ere bai. Orduka. Tel. 632-669488.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-009315.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 633-072144.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-091262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 612-469029.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-636069.
- Mutilla eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta banatzaile jarduteko. Tel. 632-876442.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-526711.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 621-081273. Ethel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-758270. Griselda.
- Neska eskaintzen da asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-478589.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 677-342171.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 649-442014. Camelia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-506382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 619-339881.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-193840.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-197835.

## 4.2. Langile bila

- Langilea behar da ekainaren 17an lan egiteko. Lan erraza da. Bidali curriculum: langileebiar@gmail.com
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako Soraluzeke taberna batean. Tel. 670-541347.
- Neska euskalduna behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-781942.
- Drogeteniturrri aldizkariak koordinatzailea behar du. Balaratuko da euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea, Kazetaritza ikasketak izatea, Quark eta Photoshop erabiltzen jakitea, Ermua edo Mallabikoa izatea, eta lidergo eta koordinazio gaitasuna izatea. Bidali curriculum ekainaren 7a baino lehen: drogeten@gmail.com
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Esperientziarekin. Tel. 635-894791.
- Kamarera/o behar da asteburuetan egunez lan egiteko. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: curriculumcafe2017@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Ingeles Filologiako graduatua eskaintzen da udan umei klase partikularrak emateko. Tel. 617-124275.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak eta ume zein helduei. Azterketarako prestaketa: EGA, IVAP, HABEren perfilak... Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



# UDAKO Euskara Ikastaroak UDAL EUSKALTEGIAN

MATRIKULATZEKO  
EPEA  
Ekainaren 5etik 20ra

16 urtetik gorakoentzat  
B1, B2 eta C1 mailak prestatzeko ikastaroak  
Ekainaren 26tik uztailaren 21era  
(egunean 4 edo 5 ordu, goizez)

Matrikula epea  
ZABALIK  
Plazo de matriculación  
ABIERTO

CURSO  
**16/17**  
IKASTURTEA  
**UDAL**  
EUSKALTEGIAK  
euskara klaseak • clases de euskera

erabili  
euskara  
utiliza el euskera

TARIFA BEREZIAK  
ditugu  
Etorri eta galdetu!



euskaltegia@eibar.eus  
Telefonoa: 943 700 912  
Faxa: 943 820 089  
**Bista Eder 10**  
-PORTALEA-

## LEA ARTIBAI LAN AZOKA

EKAINAREN 5ean  
10.30etatik - 13.00etara



Nori zuzentzen zaio: ikasle eta lanean zein langabe daudenei. Prestatu zure kurrikuluma eta zatoz enpresen beharrik eta hezkuntza eskaintza berriak ezagutzera!

### PARTAIDEAK:



Informazio gehiago:  
Xemein etorbidea 19, 48270 Markina-Xemein  
Tel. 94 616 90 02 info@leartik.com  
www.leartik.com

BABESLEA:

lea artibai  
ikastetxea  
Etorkizuna eraikiz

banka kooperatiboa



LABORAL  
kutxa



# Belaustegi

JATETXEA

# Baserria

18.  
URTEURRENA

GURE  
eskaintza

ZURE  
neurrira

[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

San Miguel gaina, z/g

Elgoibar

Tel: 943 743 102